



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko abuztuaren 28a

96. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- 11-25/PES-00156. Galdera, Nafarroan bidaidetik gabeko adingabeak hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00157. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailletza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroan izena eman duten ikasleen jatorriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00158. Galdera, iberiar otsoa babesik gabe uzteari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00159. Galdera, Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen estatutuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00160. Galdera, jakiteko non kontsultatzen ahal den etxebizitza babestuaren egungo eskatzaile-kopuruaren adierazlea. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00161. Galdera, Hedabide Digitalen eta Desinformazioaren aurkako Iberiar Behatokiarekiko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00162. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroaren europar finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00163. Galdera, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Batzorde Betearazleak kanpo-auditoretzako organismo independente bat izendatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-25/PES-00164. Galdera, Tracasa Instrumental SLren erakunde-egitura berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-25/PES-00165. Galdera, Nafarroarako osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-25/PES-00166. Galdera, NASTATEk NUPEkin lankidetzan egin duen Datu demografikoei eta horiek hezkuntza-sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-25/PES-00167. Galdera, Transporte Sanitario de Navarra Bidean SL sozietate publikoaren bidez osasun arloko garraio publikoa abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- 11-25/PES-00168. Galdera, Tuterako Reina Sofia ospitalean Minaren Unitatearen jarduera berreskuratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-25/PES-00169. Galdera, unibertsitate-graduetako eta masterretako ikasketetako kredituen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00170. Galdera, Kuo enpresaren lan-irregularitasunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00171. Galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeetako zehapen-araubideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00172. Galdera, Etxebizitza Kolaboratiboen Programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-25/PES-00173. Galdera, Betizuen presentziak Nafarroako ganaduarentzat ekar ditzakeen osasun-arriskuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00174. Galdera, A-1 autobian bidesariak ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-25/PES-00175. Galdera, Elkanoko Javier Egoitzako hazteri-agerraldia (sarna) konpontzen saiatzeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-25/PES-00176. Galdera, Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-25/PES-00177. Galdera, "Kirolean egoera sexistei aurre egiteko lagun tza-zerbitzua" sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-25/PES-00178. Galdera, kirol-plangintzan osasun mentalerako arretaren ikuspegia sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-25/PES-00180. Galdera, oinarritzko gizarte-zerbitzuen finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-25/PES-00181. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan paziente euskaldunei ematen zaien logopedia-arretari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-25/PES-00182. Galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako Plan Estrategikoko parte-hartze prozesuaren faseei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 11-25/PES-00183. Galdera, Betizu arrazako behiekiko istripu-kasuetako erantzukizunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 11-25/PES-00184. Galdera, Bidean-ek langileak subrogatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- 11-25/PES-00185. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren alokairu-kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- 11-25/PES-00186. Galdera, Nafarroako Ubidera konektatutako Leringo Edateko Uren Araztegia Toki Inbertsioetarako Planeko obretan ez sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- 11-25/PES-00187. Galdera, Nafarroako Arartekoaren Q24/987 Ebazpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- 11-25/PES-00188. Galdera, Nafarroako Arartekoaren Q24/55 Ebazpenari uruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- 11-25/PES-00189. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren balizko desegiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- 11-25/PES-00190. Galdera, Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioaren Zerbitzua izenekoaren zerbitzu-kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- 11-25/PES-00191. Galdera, Esako urtegia handitzearen ondoriozko luizi-arriskuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00156. Galdera, Nafarroan bidaidetik gabeko adingabeak hartzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Nafarroan bidaidetik gabeko adingabeak hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 11ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Es Kubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-25/PES-00156 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuak Es Kubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria naizen alde-tik, honako hau jakinarazten dut egindako galde-ra-sortari erantzunez:

Bakarrik dauden zenbat adingabe hartuko ditu zehazki Nafarroak?

Zer baliabide ekonomiko eta giza baliabide eskainiko zaizkie?

Zer datu igorri dira ministeriora akordioa lortzeko?

Adingabeek non hartzea aurreikusi da?

Zer kostu du adingabe bakoitzaren harrerak eta nola finantzatu da kostu hori?

Oraindik ez da ezagutzen autonomia-erkidego bakoitzak zenbat adingabe artatu beharko dituen. Iragan astelehenean, maiatzaren 5ean, Haurtzaroaren Konferentzia Sektoriala egin zen Madril-en. Ministerioak jakinarazi zuenez, eskatutako datuak martxoaren 31 baino lehen eman behar

baziren ere, autonomia-erkidego batzuek ez dute egin. Hori dela eta, Haurtzaroaren Ministerioak beste komunikazio bat bidali zien eskatutako informazioa eman dezaten eta banaketa nola egin zehaztu ahal izan dadin.

Sisteman artatutako gainontzeko haur eta nerabeei bezala, bakarrik dauden adingabeoi ere euren garapen integralerako behar dituzten bitarteko guztiak eskainiko zaizkie era indibidualizatuan, bakoitzaren beharrak aintzat hartuta.

Martxoaren 18ko 2/2025 Errege Lege Dekretuak jasotakoaren arabera ministerioari bidalitako datuei dagokionez, nabarmendu erantzunean ministerioari bidalitako dokumentua ere erantsi dudala.

Haur eta nerabeoi harrera egiteko asmoz, ditugun babeseko baliabideak areagotzea planifikatu dugu: Iruñerrian higiezin gehiago prestatuko ditugu lehen harrerako baliabide gisa erabiltzeko, egoitza-harrerako zerbitzu gehiago aurreikusi ditugu, Nafarroako beste eskualde batzuetan harrerako beste eredu batzuen proiektu pilotuak jorratuko ditugu eta gazteon autonomia lantzeko etxebizitzak prestatuko ditugu Nafarroan zehar. Familia-harrera bultzatzeko ere lanean ari gara.

Haur eta nerabeek artatzeak duen kostuari dagokionez, babeseko sisteman dauden gainontzeko haur eta nerabeek artatzeak duen kostu bera du, kostua bakoitzak dituen beharrek zehazten baitute. Haur edo nerabe bakoitza zer baliabidetan dagoen arabera (adingabeak behatzeko eta hartzeko zentroa, egoitza-harrera, autonomia lantzeko etxebizitza, baliabide irekia), inbertsioa ere aldatu egiten da. Finantzaketa bideei dagokionez, martxoaren 18ko 2/2025 Errege Lege Dekretuak hamaikagarren xedapen gehigarri bat ezartzen du, honako hau dioena laugarren puntuan: «Haurtzaroaren arloan eskumena duen ministerioari atxikitako funts bat sortu behar da autonomia-erkidegoei eta hiri autonomoei oso-osorik ordaintzeko

beste autonomia-erkidego edo hiri autonomo batek eramandako bakarrik dauden adingabe atzerritarrek eragindako gehiegizko okupazioak sortutako kostua. Gehiegizko okupazioa dagoela ulertuko da bakarrik dauden adingabe atzerritarrak hartzeko babes eta tutoretza sistemaren ohiko gaitasuna gaintzen denean 1. apartatuan zehaztutako baldintzen arabera, eta betiere sistemak duen harrerako plaza-kopuruak Estatuko 100.000 biztanleko batezbesteko plaza-kopurua gaintzen badu eta egoerak iraun bitartean». Aipatu finantzioa eraginkor egiteko adierazleak zehaztu gabe daude oraindik ere.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Erantzun osagarria

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BABES SISTEMAN ARTATUTAKO ADINGABEAK

Ezohiko migrazio-kontingentzien aurrean haurtzaroaren eta nerabezaroaren interes gorena bermatzeko urgentziatzko neurriak onartzen dituen martxoaren 18ko 2/2025 Errege Lege Dekretuaren hamaikagarren xedapen gehigarriak ezarritakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateak bertan artatutako bakarrik dauden adingabe atzerritar kopuruaren gaineko informazioa bidaltzen du, bai eta adingabeen harrerako plazen benetako okupazioaren gainekoa ere, adingabeak atzerritarrak izan edo ez.

1. Nafarroako Foru Komunitateko babes sisteman artatutako adingabeen eta gazteen kopuru totala.

Babes sistemak 807 pertsona artatzen ditu guztira; horietako 320 bakarrik dauden atzerritarrak dira, hau da, artatutako guztien % 39,65.

	Artatutako pertsonak guztira	Artatutako atzerritarrak guztira
Egoitza-harrera	359	163
Familia-harrera	253	1
Autonomia lantzeko prozesuak-Baliabide irekiak (18 urtetik gorakoak)	195	156
GUZTIRA	807	320

		%
Adingabe eta gazte migranteak	320	39,65

2. Nafarroako Foru Komunitateak artatutako adingabeen kopurua.

Nafarroako Foru Komunitateak artatutako adingabeak 612 dira 2025eko martxoaren 28an; horietatik 359 egoitza-harrerako plazetan daude.

Baliabide mota	2025/03/28
Egoitza-harrera	359
Familia-harrera	253
GUZTIRA	612

3. Nafarroako Foru Komunitateak artatutako bakarrik dauden adingabe atzerritarren kopurua.

Nafarroako Foru Komunitateak artatutako bakarrik dauden adingabe atzerritarrek 164 dira 2025eko martxoaren 28an.

Baliabide mota	2025/03/28
Egoitza-harrera	163
Familia-harrera	1
GUZTIRA	164

4. Egoitza-harrerako plazetan dauden bakarrik dauden adingabe atzerritarrek, plazotan dauden adingabeko guztien % 45,40 dira.

	Artatutako adingabeen kopurua
Egoitza-harrerako baliabideetan artatutako adingabeen kopurua guztira	359
Egoitza-harrerako baliabideetan artatutako adingabe atzerritarren kopurua guztira	163
Artatutako adingabe atzerritarren ehunekoa kopuru totalarekiko	% 45,40

5. Adingabeentzat egoitza-harrerako plazak Nafarroako Foru Komunitatean eta okupazio-ehunekoa.

Adingabeentzat egoitza-harrerako plazak 352 dira guztira Nafarroako Foru Komunitatean. Artatutako adingabeak 359 dira, eta, beraz, okupazio-ehunekoa % 102koa da.

	Toki-kopurua
Adingabekoentzako plaza kopurua guztira	352
Artatutako adingabeak guztira	359
Artatutako adingabe atzerritarren kopurua guztira	163
Plazen okupazio-ehunekoa	102 %

6. Babes sistemak artatutako 18 urtez gorako gazteak 195 dira; horietatik 98 autonomia lantzeko etxebizitzetan daude eta 97 bizitza independentera igarotzeko gizarte- eta hezkuntza-arloko programetan (baliabide irekiak).

	Guztira
Autonomia lantzeko etxebizitzetan artatutako gazteak guztira	98
Baliabide irekietan abian jarritako programetan artatutako gazteak guztira	97
Artatutako gazteak guztira	195

7. Babes sistemak artatutako 18 urtez gorako bakarrik dauden gazte atzerritarrak 156 dira; horietatik 82 autonomia lantzeko etxebizitzetan daude eta 74 baliabide irekietan. Artatutako gazteen % 80 dira atzerritarrak.

	Guztira	Atzerritarren ehunekoa artatutako gazte guztiak aintzat hartuta
Autonomia lantzeko etxebizitzetan artatutako gazte atzerritarrak guztira	82	% 83,67
Baliabide irekietan abian jarritako programetan artatutako gazte atzerritarrak guztira	74	% 76,28
Babes sistemak artatutako gazte atzerritarrak guztira	156	% 80

Iruñean, 2025eko martxoaren 29an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuko idazkari tekniko nagusia: Fermín Casado Leoz

Hautzaro, Nerabezaro eta Familiako zuzendariordea: Amalia Cuartero Arteta

11-25/PES-00157. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailletza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroan izena eman duten ikasleen jatorriari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Ikus-entzunezko Ekintzailletza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroan izena eman duten ikasleen jatorriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 11ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak 11-25/PES-00157 galdera egin zuen Ekintzailletza eta Ikus-entzunezko Berrikuntza unibertsitateko aditu ikastaroan izena eman-

dako ikasleen jatorriaren inguruan, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Aintzat hartuta ikastaroaren edizio bakarra egin zela, honako hau izan zen ikasleen jatorria:

- Gipuzkoako bost ikasle.
- Nafarroako bost ikasle.
- Arabako ikasle bat.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 6an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga jauna

11-25/PES-00158. Galdera, iberiar otsoa babesik gabe uzteari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak iberiar otsoa babesik gabe uzteari dagokionez Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 11ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-25/PES-00158 idatzizko galdera egin zuen, iberiar otsoak jasaten duen babesgabetasunaren gainean. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

1. Nafarroako Gobernuak zer jarrera du Diputatuen Kongresuak iberiar otsoa Duero ibaiaren iparraldean babesik gabe uztea onartu izanaren gainean?

Nafarroako azken otsoa iragan mendeko lehen zatian hil zuten. Ondorioz, *Canis lupus* espeziea «galdutako espezie» deklaratu zuen 563/1995 Foru Dekretuak, basafaunako ornodunen zenbait espezie eta subespezie Nafarroako Espezie Mehatxatuen Katalogoan sartu zituenak.

Nafarroako arrantzaren kudeaketari buruzko abenduaren 26ko 21/2023 Foru Legearen azken xedapenetako bigarrenaren bidez, Nafarroako basafauna babesteko kategoriak aldatu ziren, zehazki, Basafauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legean jasota zeudenak; ondorioz, «galdutakotzat» jotako espezieak deskatalogatuta geratu ziren. Horrenbestez, *Canis lupus* espeziea ez dago uneotan Nafarroako inolako katalogotan jasota.

Are, iberiar otsoa Nafarroan edo inguruko lurraldeetan agertu izanari dagokionez, nabarmendu behar da ez dagoela inolako frogarik esateko espezieak foru lurraldean presentzia iraunkorrik edo ohikorik duenik. Berriki kasu positibo bezala onartu zen otso batek Errege Bardean ganaduari egindako eraso, baina eraso Aragoitik heldutako banako alderrai batek egin zuela eta ondoren bertara itzuli zela ondorioztatu zen. Era berean, jakina da Aragoi isolatutako zenbait otso egon badaudela, bertan inolako talderik ezarri denik egiaztatu ez bada ere. Errioxan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egon badaude otso taldeak, baina Nafarroako mugetatik urrun. Pirinio Atlantikoetako Departamenduko mugetatik gertu ere ez dago otso talderik, Frantziako agintariek Pirinioen eta Landen artean banako alderraien presentzia egiaztatu duten arren.

Diputatuen Kongresuak onartutako aldaketaren gaineko zenbait kontsiderazio:

Diputatuen Kongresuak berriki onartutako Eli-kagaiak Botatzea eta Alferrik Galtzea Prebenitzeko apirilaren 1eko 1/2025 Legeak, zenbait kontsiderazio ezartzen ditu Espainiako otsoaren babes-estatuarekin lotuta:

– Azken xedapenetako hemeretzigarrena: Babes Bereziko Erregimeneko Espezie Basatien Zerrenda eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa garatzeko otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretua aldatzen du, otsoa Babes Bereziko Erregimeneko Espezie Basatien Zerrendan mantenduz, baina soilik Duero ibaiaren hegoaldean kokatutako populazioen kasuan. Horrek aurreko egoera aldatzea dakar, aurretik otso populazio guztiak sartzten baitziren Babes Bereziko Erregimeneko Espezie Basatien Zerrendan.

– Xedapen iragankor bakarra. Europako araudira egokitzea: ezartzen du habitat naturalak eta fauna eta flora basatiak babesteko Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentzarauak ezarritako otsoa babesteko erregimenaren aldaketak, automatikoki eragingo duela aipatutako otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretuaren aldaketa, zehazki, otso populazio guztiak Babes Bereziko Erregimeneko Espezie Basatien Zerrendatik kanpo geratzea eragingo du.

Bestalde, Europako Batzordeak Europan otsoaren babes-estatusa aldatzeko eskatu zion Europako Bizitza Basatia eta Ingurune Naturala Kontserbatzeko Hitzarmenaren (Bernako Hitzarmena) batzorde iraunkorrari. Bada, 2024ko abenduaren 6an, Bernako Hitzarmenaren batzorde iraunkorrek Europar Batasunaren proposamena onartu zuen, eta otsoa II. gehigarritik (zorrozki babestutako fauna espeziak) III. gehigarriara (babeztutako fauna espezieak) eraman zuen. Erabakia hiru hilabete geroagosartu zen indarrean, Bernako Hitzarmenaren 17. artikuluan ezarritako prozedura-rekin bat.

Aldaketa indarrean jartzean, aldaketa Bernako Hitzarmenaren markoan jasota geratzea helburu hartuta, Europako Batzordeak martxan jarri ditu habitat naturalak eta fauna eta flora basatiak babesteko 92/43/EEE Zuzentzarauaren eranskinak aldatzeko izapideak, otsoaren gaineko aipamena IV. eranskinetik V. eranskinera eramatea xede.

Horiek horrela, Europar Batasuneko indarreko esparru normatiboak aukera emango du otsoaren kudeaketa egokitzeko aintzat hartuta espeziearen presentzia zenbaterainokoa den, otsoaren eta gizakien jardueren arteko interakzioa eta beste; hau da, tokian tokiko egoera partikular eta heterogeneoak aintzat hartuko dira bai estatuz estatu bai eremu europarrean. Azken batean, lurralde bakoitzak aukera izango du dituen berezitasunen arabera heltzeko bai espeziearen kontserbazioaren auziari bai otsoak abeltzaintza estentsiboa bezalako jarduerekin izan beharreko elkarreraginaren auziari ere. Ildo horretan, Diputatuen Kongresuan egindako aldaketak zuzenean Nafarroako Foru Komunitateari eragiten ez badio ere –izan ere, azaldu bezala, uneotan bertan ez dago otso populaziorik–, positibotzat jotzen da, aukera ematen baitu otso populazioak egon badauden autonomia-erkidegoetan espeziaren kudeaketa tokian tokiko egoerara eta berezitasunenetara egokitzeko.

2. Nafarroako Gobernuak zer neurri edo ekimen inplementatzea aurreikusten du?

Nafarroako Gobernua jakitun da harrapari handien kudeaketak lotura zuzena duela abeltzaintza

estentsiboarekin. Ildo horretan, abeltzaintza mota horren garrantzia nabarmentzen du, ez soilik ikuspuntu sozialetik eta herritarrak landa guneetan finkatzeari dagokionez, baizik eta larre naturalen ekosistemekin lotutako ingurumen balioen kontserbazioarekin lotuta ere, adibidez, Batasunaren intereseko espezie eta habitat ugari, asko mehatxupean daudenak. Era berean, desagertzeko arriskuan dauden ganadu arrazak mantentzeko ere garrantzitsua da abeltzaintza estentsiboa. Are, sastrakak hedatzea saihesten du, larreen kontserbazioa ahalbidetuz eta sute arriskua murriztuz.

Horrenbestez, abeltzaintza estentsiboa "multifuntzionaltasun" kontzeptuarekin lotuta dago, zerbitzu ekonomikoen, sozialen eta ingurumenekoan osagarria baita.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak neurriak ezartzen ari da abeltzaintza estentsiboa egiten den lurraldeetan harrapari handien presentziak eragiten dituen gatazkak minimizatzeko asmoz. Orain artean, ekialdeko Pirinioetako gune oso lokalizatu batean soilik izan dira arazoak harraparien presentziagatik, zehazki udan zehar bertan agertutako hartz arreen ondorioz. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, espresuki babes neurrien inplementazioa sustatzera bideratutako nekazaritza- eta ingurumen-neurri bat sartu zuen Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoan (2023-2027).

Nafarroan etorkizunean harrapari handien presentzia handiagoa abeltzaintza estentsiboaren garapen normalerako arazo bilakatu daitekeela aurreikusita, 2024ko Nekazaritza Politika Erkideko laguntzak eskatzeko orduan, aipatu nekazaritza- eta ingurumen-neurria ezarri zen lurralde osoan, helburu hartuta abeltzainei ahalbidetzea pixkanaka-pixkanaka prestatu daitezen ganadu taldeak harrapari handien presentzia hipotetikotik babesteko.

Nekazaritza- eta ingurumen-laguntza abeltzainei ganadu taldeak babesteko erraztasunak ematean datza, zehazki, lau neurriren bitartez:

- 1. neurria – Geolokalizatzaileak: abeltzainek ganadua non dagoen jakin dezakete zehaztasun osoz, eta, horrenbestez, animaliak zaintzea eta babestea askoz errazagoa bilakatzen da. Animaliak landan direla izandako edozein gertaeraren berri jaso dezakete abeltzainek.
- 2. neurria – Aldi baterako gaua igarotzeko egiturak: ganadua gauean zehar babesteko aukera ematen dute, hau da, harraparien erasoak izateko aukera handiena dagoen unean.
- 3. neurria – Txakur zaintzaileak: antzeko arazoak dauden leku askotan, ganadu taldeak ba-

tzeko eta abeltzaintza optimizatzeko kudeaketako erreminta eraginkorra direla egiaztatu da, bai eta harrapariak saihesteko ere.

- 4. neurria – Zaintza-lanetan laguntzea arrisku eremuetan egiten den artzaintza estentsiboa. Abeltzaina ganaduarekin landan egotea funtsezko kudeaketako erreminta da abeltzaintza estentsiboa, bai ganadu taldearen zaintzan eta maneian egiten duen ekarpenagatik, bai basafaunarekin, basati bihurtutako txakurrekin eta bestelako arriskuekin interakzioa nabarmen txikitzea ahalbidetzen duelako ere.

Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak, berria izan arren, 60 abeltzaini ahalbidetu die 2024an beharrezko neurriak ezartzea; guztira, laguntza ekonomikoa 120.000 eurokoa izan da. Neurriak 2025ean ere harrera ona izatea aurreikusten da; gainera, laguntzaren baldintzak hobetu egin dira.

Era berean, abeltzaintza estentsiboa laguntzeko askoz, Departamentuak abeltzaintzako sistema jasangarrien nekazaritza- eta ingurumen-laguntza indartzea izapidetu du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioan, bereziki Erronkarin, foru-komunitateko gainontzeko lurraldeekin alderatuta, bertan identifikatu baita jardueraren beherakada nabarmenena. Horrenbestez, hektareako 24,92 euroko prima gehigarri bat ezarri da, alde zuzeneko zegoen hektareako 28 euroko oinarritzko primari gehituta; aurreikuspena Ministerioak ezarritako prima gehigarria 2025eko uztailen onartzea da, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren aldaketa aurreikuspenaren barruan.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak sustatuko ekintza-zehatzen beste multzo bat, zuzenean Departamentuak sustatutako jarduketan bitartez gauzatzen da. Honako hauek dira ekintzotako batzuk:

- Basoen Zerbitzuak egindako inbertsio zuzenak, pistak, askak eta abeltzaintzako azpiegiturak egiteko. 2024an abeltzaintza estentsiboa sustatzeko Nafarroako Foru Komunitatean egindako inbertsioek 898.060,54 euroko balioa izan zuten guztira.
- 2024an basoak antolatzeke sei proiektu egitea lizitatu zen, eta guztiek dute larreak antolatzeke eranskin espezifikoak. Horrez gain, uneotan Uztarrozeke larreak antolatzeke plana idazten ari da, Erronkariko Ibaxaren Batzordeak proposatuta.
- Harraparien jarraipena egiteko neurrien inplementazioa. 2024an harraparien jarraipena egiteko hamar kamera eskuratu ziren, animaliak igarotzean automatikoki aktibatzen direnak; aurtun

beste hamar eskuratu dira, jarraipen-puntuaren sarea indartzeko. Era berean, ileen laginak hartzeko puntuaren sare bat ere badago, Nafarroan agertzen diren harrapariak identifikatzea ahalbidetzen duena analisi genetikoaren bitartez.

- Behar beste jarraipen-mahai martxan jartzeko konpromisoa, harrapari handien kudeaketari ekiteko Nafarroan tokian tokiko erakundeekin eta herritarrekin elkarlanean. Uneotan, Hartzaren Mahaia martxan dago Erronkarin.

Azkenik, basafaunak eragindako kalteak dardenean abeltzaintza estentsiboan, Landa Garapene

neko eta Ingurumeneko Departamentuak bere gain hartzen du dagokion kalte-ordainen ordainketa. Egun kalte-ordainen zenbatekoak eguneratzeko lanean ari gara, helburu hartuta kopuru berriak dagoeneko 2025ean izan litezkeen kalteetan ere aplikatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00159. Galdera, Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen estatutuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen estatutuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 11ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-159 galdera egin zuen.

«2017ko urtarrilaren 30ean sinatu zen “Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen Estatutuak” izeneko dokumentuan, 22. artikuluan, honako hau jasotzen da hitzez hitz:

“Batzorde Betearazleak taxutuko du barne-araudia, eta ondoren Biltzarrak onetsiko du. Barne-araudiak Lurralde-lankidetzako Europako Taldearen funtzionamendu-baldintzak ezarriko ditu, ez baitira estatutuetan aurreikusten”.

Batzorde Betearazleak taxutu al du barne-araudi hori?

Biltzarrak onartu al du barne-araudi hori? Noiz?

Onartu baldin badu, zergatik egiten diozue uko guri kopia bat emateari?

Barne-araudia onartu ez baldin badu, estatuak zergatik bete ez diren jakin nahi dugu».

Bada, bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galdera-sortari erantzunez:

Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea Lurralde-lankidetzako Europako Taldeak 2017ko urtarrilaren 30ean datatutako estatuaren arabera funtzionatzen du, 22. artikuluan barne-araudi bat onartzeko aukera aurreikusten duena. Aldiz, gaurgaurkoz, Batzorde Betearazleak ez du inolako barne-araudirik idatzi.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 16an

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

11-25/PES-00160. Galdera, jakiteko non kontsultatzen ahal den etxebizitza babestuaren egungo eskatzaile-kopuruaren adierazlea

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko non kontsultatzen ahal den etxebizitza babestuaren egungo eskatzaile-kopuruaren adierazlea, 2025eko apirilaren 11ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak 11-25/PES-00160 galdera egin zuen etxebizitza babestuen eskatzaileen kopuruaren adierazlea kontsulta-

tzeko aukeraren inguruan, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuako Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Etxebizitza babestuen eskatzaileen kopurua (sexuaren, adinaren, etxebizitza motaren eta abarren arabera segmentatuta), www.navarra.es/eu/etxebizitza webguneko Albisteak atalean dago eskuragarri. Bertan, beste zenbait informazio interesgarri ere kontsulta daitezke:

www.navarra.es/eu/etxebizitza

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00161. Galdera, Hedabide Digitalen eta Desinformazioaren aurkako Iberiar Behatokiarekiko hitzarmenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Hedabide Digitalen eta Desinformazioaren aurkako Iberiar Behatokiarekiko hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 11ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-00161 galdera egin zion

Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun zekion. Zehazki, honako informazio hau eskatu zuen:

Joan den martxoaren 27an, Parlamentuaren Osoko Bilkuran, lehendakariak berriro adierazi zuen hitzarmen bat sinatu nahi duela Hedabide Digitalen eta Desinformazioaren aurkako Iberiar Behatokiarekin (Iberifier). Bada, iragarpen horrekin lotuta, honako galdera hauek egin nahi ditut:

– Zenbat bilera egin dira auzia aztertzeko Behatokiak Nafarroan dituen koordinatzaileekin? Zein egunetan eta norekin?

– Zer ekintza jasoko dira sinatu nahi den hitzarmenean?

– Noiz aurreikusten duzue hitzarmena sinatzea?

– Zer aurrekontu izanen duela aurreikusten duzue eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren zer lerroren kontura eginen da?

Nafarroako Gobernuako lehendakariak bi bilera izan ditu Iberifier behatokiko koordinatzaile Ramón Salaverriá jaunarekin:

- 2024ko martxoak 15

Parte-hartzaileak:

Nafarroako lehendakaria: María Chivite.

Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusia: Miguel Moreno.

Iberifier behatokiko koordinatzailea: Ramón Salaverriá.

- 2025eko apirilak 8

Parte-hartzaileak:

Nafarroako lehendakaria: María Chivite.

Digitalizazioko eta Hezkuntza Zerbitzuetako zuzendari nagusia: Luis Calatayud.

Lehendakariaren aholkularia: Miguel Moreno.

Iberifier behatokiko koordinatzailea: Ramón Salaverriá.

Hitzarmenaren zirriborroa prestatzeko lanak abian dira uneotan. Aurreikuspena da hitzarmenak lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakasleentzako ikastaroak ematea jasotzea, bai eta alderdi sinatzaileentzat inolako konpromiso ekonomikorik ez eragitea ere.

Hitzarmena aurki sinatzea aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 6an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00162. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroaren europar finantzaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroaren europar finantzaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 11ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00162 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroa egiteko europar finantzazioaren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilaria naitzen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Parlamentariak egindako galderarekin lotutako kontuak Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko iragan martxoaren 19ko Bitariko Batzordean besterik ez ziren jorratu. Aipatu bilera-aren akta, parlamentariak egindako 11-25/PEI-00407 informazio-eskaeraren erantzunarekin batera helarazi da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00163. Galdera, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Batzorde Betearazleak kanpo-auditoretzako organismo independente bat izendatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Batzorde Betearazleak kanpo-auditoretzako organismo independente bat izendatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 11ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak egindako PES-136 galderarekin lotuta, bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galdera-sortari erantzunez:

– Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Batzorde Betearazleak kanpo-auditore-

tzako organismo independente bat izendatu al du Estatutuen 12. artikuluan zehaztutako kontrolaren osagarri gisa?

– Hala balitz, zer erakunde izendatu du?

– Hala balitz, zer egiteko agindu dio?

«Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen administrazio-, aurrekontu- eta finantza-kontrola Frantziako zuzenbidearen arabera egiten da, eta Eskualdeko Kontuen Ganberak kanpo-auditoretzako erakunde independente gisa parte hartzen du. Kanpo-auditoretzako erakunde independente bat izendatzea Estatutuen 12. artikuluan zehaztutakoaren osagarri gisa jarduteko, hautazkoa da Estatutuen 9.3 artikuluaen arabera. Bada, gaur-gaurkoz, ez da inolako erakunderik izendatu osagarri gisa jarduteko».

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 16an

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-25/PES-00164. Galdera, Tracasa Instrumental SLren erakunde-egitura berriari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Tracasa Instrumental SLren erakunde-egitura berriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 11ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak PES-11-25/00164 galdera egin zuen Tracasa Instrumental SL sozietatearen erakunde-egitura berriaren gainean, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Tracasa Instrumental SL sozietateak emandako informazioen arabera, erakundearen egituratik Eragiketetarako Zuzendaritza eta Software Ingeniaritzako eta Informazio Sistemetakoa Departamentua ezabatu dira.

Horrez gain, aipatu departamentuaren barruan zeuden bi arloak departamentu gisa eratu dira zenbait arrazoi tarteko: sozietatean emandako belaunaldi aldaketa, lantaldeen tamaina, kudeatu beharreko proiektu kopurua eta egin beharreko mandatuen konplexutasuna.

Hori dela eta, beharrezkotzat jo da Tracasa Instrumental SL enpresa publikoaren zuzendaritza batzordean pertsona bat gehiago sartzea, aurrekontua 5.400,75 eurotan areagotzea ekarri duena.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00165. Galdera, Nafarroarako osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu planari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Nafarroarako osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 16ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak 11-25/PES-00165 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderasortari erantzunez:

– Osasuneko Departamentuak edo/eta Osasuneko kontseilariak ba al du asmorik Nafarroako osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu plana aurkezteko? Zer epetan?

– Osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko funtzionamendu plana aurkezteko asmorik ez badu, noiz irekiko da berriro Erriberriko Etengekoko Arretarako Gunea?

– Osasuneko kontseilariak Nafarroako etengabeko arretarako beste guneren bat aldatzea edo kentzea aurreikusten al du? Oinarrizko zer osasun barrutitan eta zer epetan egingen litzateke hori?

– Nafarroako Etengekoko eta Larrialdiko Arretarako ereduak aldatzen ez baldin bada, zerk justifikatzen ditu arretaren arloan egindako aldaketak eta balizko itxierak?

Osasuneko Departamentuak Nafarroako Etengekoko eta Larrialdiko Arreta erreformatzeko proposamen bat egin du, eta, uneotan, azken alderdi tekniko eta administratiboak bukatzen ari da proposamena argitaratu eta parte hartze prozesua abian jartzeko.

Nafarroan osasun publikoaren kudeatzailea den aldetik, Osasuneko Departamentuak egin du Etengekoko eta Larrialdiko Arreta erreformatzeko proposamena, helburu hartuta asistentzia lurralde-ekitatean eta irisgarritasunean oinarrituta bermatzea; era berean, osasun sistema publikoaren jasangarritasuna lagundu nahi izan du. Aintzat hartuta hurrengo urteetan profesionalen eskasia are gehiago larriagotuko dela, behar-beharrezkoa da profesionalen lanordua optimizatzea; horretarako, jarduera gutxi gaueko plazetatik, uneotan estali gabe dauden goizeko ordutegietako plazetara bideratu behar ditugu profesionalak, edo larrialdietako jarduera areagotu delako laguntza beharra duten etengabeko arretako beste puntu batzuetara.

Proposamena aurrera eramateko lege-aldaketak egitea beharrezkoa denez, aurreikusitako parte-hartze prozesuak ukitutako eragile profesional guztiekin bilerak eta aurkezpenak jasotzen ditu izapidetze parlamentarioa hasi aurretik (osasuneko oinarrizko zonen zuzendariak, mahai sektoriala, Osasun Kontseilua, talde parlamentarioak, Udal eta Kontzejuen Federazioa, Toki Araubideko

Foru Batzordea eta erakusketa publikoko prozesua Gardentasun Atariaren bitartez).

Nafarroako Etengabeko eta Larrialdiko Arreta erreformatzeko proposamena egiteko, hurrengo aldagaiak aztertu dira aldaketak jasan ditzakeen etengabeko arretarako gune bakoitzean, irizpide teknikoak eta objektiboak aintzat hartuta:

- Udalerriak: Etengabeko arretarako gune bakoitzak artatzen duen biztanleria, 2025eko urtarilean norbanakoaren osasun txartela zuten pertsonen kopurua oinarri hartuta.

- Egungo antolaketa ereduak: Zentro bakoitzean Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeetan eta Landa Eremuko Larrialdien Zerbitzuko taldeetan lan egiten duten profesionalak, lanaldia ere aintzat hartuta.

- Jarduera asistentziala: Etengabeko arretarako gune bakoitzean ordutegi bakoitzean (goizez, arratsaldean eta gauez) izandako batez besteko artatze kopurua 2023an eta 2024an.

- 2025eko proposamena: Antolaketa eredu berriaren proposamena eta isokronoak udalerrri bakoitzetik etengabeko arretarako gunera/larrialdietako zerbitzu arruntera/ospitalez kanpoko larrialdietako zerbitzura erreforma aplikatutakoan, eta jarduera arreta zentralizatuko den etengabeko arretarako gune/larrialdietako zerbitzu arrunt/ospitalez kanpoko larrialdietako zerbitzu bakoitzean erreformarik aplikatuz gero.

- Isokronoak: Osasun baliabide baten (etengabeko arretarako gunea, ospitalea, ambulanzia eta beste) eta Nafarroan erregistratutako norbanakoaren osasun txartel bakoitzaren artean (Osasun Departamentuaren eskariz Tracasak egindako azterketa baten arabera).

- Anbulantziak: Zona bakoitzean zerbitzuak ematen dituzten ambulanzien zuzkidura.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00166. Galdera, NASTATEk NUPekin lankidetzan egin duen Datu demografikoei eta horiek hezkuntza-sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak NASTATEk NUPekin lankidetzan egin duen Datu demografikoei eta horiek hezkuntza-sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 16ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak PES-00166 galdera egin zion Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun zekion. Zehazki, honako informazio hau eskatu zuen:

Noizko egonen da prest Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan NASTAT egiten ari den "Datu demografikoei hezkuntza-sisteman eta ratioetan duten eragina" azterlana?

2025eko azken hiruhilekoan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 6an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00167. Galdera, Transporte Sanitario de Navarra Bidean SL sozietate publikoaren bidez osasun arloko garraio publikoa abian jartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Transporte Sanitario de Navarra Bidean SL sozietate publikoaren bidez osasun arloko garraio publikoa abian jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 16ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00167 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako

Gobernuko Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Gobernuak mantentzen al du Nafarroako osasun-garraio publikoa 2025eko lehen seihilekoa bukatu aitzin jarriko dela abian, Transporte Sanitario de Navarra Bidean SL sozietate publikoaren bidez?

Osasun-garraio publikoa 2025eko maiatzaren 31tik aurrera jarriko da abian Bidean sozietate publikoaren bidez.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00168. Galdera, Tuterako Reina Sofia ospitalean Minaren Unitatearen jarduera berreskuratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Tuterako Reina Sofia ospitalean Minaren Unitatearen jarduera berreskuratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 16ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-25/PES-00168 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurreikuspenen arabera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Minaren Unitatea noiz iritsiko da berriro artatzera aurreko urteetan artatzen zuen paziente-kopuru bera?

Nafarroako Osasun Zerbitzuak Minaren Unitatean aztertuak edo artatuak izatea behar duten Tuterako Osasun Barrutiko pazienteen arreta bermatzen jarraituko du, pazienteen kopurua aurreko urteetakoa baino handiagoa edo txikiagoa izan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00169. Galdera, unibertsitate-graduetako eta masterretako ikasketetako kredituen kostuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak unibertsitate-graduetako eta masterretako ikasketetako kredituen kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 16ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-11-25/00169 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, unibertsitateko graduak eta masterrak egiteko kredituen kostuaren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Duela 10 urte baino gehiago ezarritako prozedura baliatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoan titulu ofizialak eskuratzeko zerbitzu akademi-

koengatik eta gainerako eskubideengatik ordaindu beharreko prezioak finkatzen dituen foru agindua, Nafarroako Gobernuak urtero ematen duena, taxutzeko. Foru aginduan, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Nagusiak ezarritako irizpideetan oinarrituta proposatzen dizkio prezioak Nafarroako Unibertsitate Publikoak departamentuari.

Nafarroako Gobernutik Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lan egin eta proposamen hori onartzen dugu.

Ondoren, dokumentu labur bat egiten da; zehazki, egungo ikasturterako egindako dokumentua 11-25/PEI-00312 informazio-eskaerarekin lotuta helarazi zitzaizun.

Horiek horrela, Nafarroako Unibertsitate Publikoa da kalkulua egiten duena eta kostuaren bilakaera eta ikasleak ordaindu beharreko zenbatekoa zehazten dituena.

Hori jakinarazten dut, ezarritako epeak eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00170. Galdera, Kuo enpresaren lan-irregulartasunei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Kuo enpresaren lan-irregulartasunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 30eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko foru parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, 11-25/PES-00170 galdera egin zion Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuan ez dugu inolako frogarik edo lekukotasunik segurtasuneko langileek Kuo enpresaren gaineko kezarik aurkeztu izanaren gainean, eta, beraz, ez dugu ekimen parlamentarioan aipatutako ustezko praktiken gaineko inolako berririk.

Gainbegiratze edo ikuskapeneko jarduketei dagokienez, zehaztu Segurtasuneko Esparru Akordioako «Erorritako kontratuen jarraipena eta ikuskapen ahalmena» 30. klausulan ezarri bezala egiten direla. Horrenbestez, enpresaren koordinatzaile arduradunekin etengabeko komunikazioa dugu zerbitzuaren funtzionamendu zuzena eta Segurtasuneko Esparru Akordioan jasotako neurrien ezarpena bermatzeko.

Azkenik, nabarmendu 2025eko otsailaren 1etik maiatzaren 5era bitarte, erakundearen plantillak hazkunde nabarmena izan zuela, bereziki ospitaleetan (Nafarroako Unibertsitate Ospitalea eta García Orcoyen ospitalea); langileen kopurua % 25 hazi zen, 24 langiletik 30era igaroz aipatu aldian. Hazkunde hori osasun-zentroetan giza baliabideak indartzeko eta gehitzeko estrategia aktiboaren isla da, helburu duena eskari berriei erantzutea, zerbitzuak berregituratzea eta lanpostu berriak ezartzea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 23an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-25/PES-00171. Galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeetako zehapen-araubideari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeetako zehapen-araubideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 30eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-00171 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galdera-sortari erantzunez:

Galdera: Nola aurreikusten du Nafarroako Gobernuak tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaraturako udalerrietan indarrean jarriko diren neurriak betetzen direla zaintzea eta nola

detektatu nahi ditu gertatzen diren arau-haustek edo ez-betetzeak?

Nafarroako tentsiopeko etxebizitza merkatuaren zonaldeen deklarazioa onestearekin batera, zonalde horietarako neurrien plan bat prestatzen da, Foru Komunitateko etxebizitza sistema osoan tentsioa murrizteko.

Plan horren helburuen artean, ikuskapen eta kontrol sistemak egokitzeko eta hobetzeko aurreikuspena dago. Gaur egun, Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak ditu abian sistema horiek, Etxebizitza Arloko VIII. Ikuskapen eta Kontrol Planaren bidez. Sei jarduketa ardatzetan biltzen ditu neurriak:

1. Etxebizitzak sustatu eta eraikitzea.
2. Etxebizitza esleitzea.
3. Etxebizitza babestua eskualdatzea eta lagatzea.
4. Etxebizitza babestuen xedea eta erabilera.
5. Alokairuko errenta ordaintzeko laguntzak, gazteentzat eta diru sarrera txikiak dituzten familia unitateentzat.
6. Etxebizitza hutsak.

Halaber, ikuskapen eta kontrol plan hori osatzeko, zazpigarren ardatz bat ere sortuko da tentsiopeko etxebizitza merkatuaren zonaldeetarako neurrien planaren arabera, alokairu kontratu guztiak Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak abian jarri duen Nafarroako Errentamendu Kontratuen Erregistroan inskribatu beharri buruzkoa. Era berean, etorkizuneari, nahitaez inskribatu beharko da Nafarroan etxebizitza duten pertsona fisiko eta juridiko handien erregistroan. Bi tresna horiei esker kontrolatzen ahalko du Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak kontratu horiek guztiak indarreko araudira egokitzeko, eta, gainera, etxebizitza politiketan erabakiak hartzeko behar den informazio guztia lortzen ahalko du.

Horrez gain, 4. ardatzaren barruan (“Etxebizitza babestuen xedea eta erabilera”), parke publikoko ahalik eta etxebizitza gehien kontrolatuko dira. Alde horretatik, higiezin atarietan argitaratutako pisu turistikoaren eta sasoiko alokairuen eskaintza ere aztertuko da, eremu horretan babes araubideari lotutako etxebizitzak detektatzeko, eta, modu berean, Turismo Zuzendaritza Nagusiarekin datuak koordinatzeko eta trukatzeko mekanismoak indartzeko.

Tentsiopeko merkatuaren zonaldeetarako neurrien planak beste jarduketa espezifiko batzuk ere ezartzen ditu, dauden ikuskapen eta kontrol meka-

nismoak zabaltzeko. Hala, aurreikusita dago herritarrek oro har aurkezten dituzten salaketak izapidez, ikuskapena eta kontrola egitean informazio fiskala erabiltzea, edo higiezin atariak egiten dituzten eskaintzen jarraipena egitea, balizko ez-betetzeak antzemate aldera.

Azkenik —hau ere planean dago jasota—, garrantzi berezia du etxebizitza hutsak alokairuaren merkatura mugitzeak, tentsiopeko zonaldeetan arazoizko prezioa duen eskaintza handitzeak horien egoera hobetzen lagun dezan. Beraz, beharrezkoa izanen da etxebizitza hutsen jabeen laguntza, informazioa eta akonpainamendua ematea etxebizitza horiek merkatura ateratzea errazteko.

Galdera: Zer zehapen araubide aplikatuko da tentsiopeko etxebizitza merkatuaren zonalde deklaratuak udalerrietan aplikatutako neurrien arau-hausteen kasuan?

Zehapen araubideari dagokionez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean xedatutakoa beteko da. Lege horren VI. tituluko (“Iruzuraren kontrola eta prebentzioa”) III. kapitulua, ikuskapenari, legezketasunaren defentsari eta berrezarpenari eta zehapen araubideari buruzkoa da.

Ikuskatzeko funtzioa duen administrazio unitatea Berrikuntza, Parte-Hartze, Ikuskapen eta Hedapen Zerbitzua da, eta horixe bera arduratzen da, halaber, Ikuskapen eta Kontrol Plana egiteaz eta exekutatzeari.

Galdera: Zein izanen da arau-hauste horien kasuan jarraitu beharreko prozedura?

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen VI. titulua iruzurraren kontrolari eta prebentzioari buruzkoa da, eta 56. artikulutik 74.era bitartean hainbat xedapen biltzen ditu ikuskapenari, legezketasunaren babesari eta berrezarpenari eta zehapen araubidearen inguruan. Arau horretan berriaz jasota ez dagoen guztian, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

Galdera: Zer zehapen aurreikusten dira arau-hauste horietarako, bereziki ezarritako alokairu errentaren prezioaren muga errespetatzen ez den kasuetarako?

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeak 67. artikuluan xehatzen ditu arau-hausteari maiaren arabera aplikatu daitezkeen zehapenak: ari-

nak, larriak edo oso larriak. Orobat, erantzukizunaren hainbat astungarri eta aringarri ageri dira.

Gainera, kontuan izan behar da gaur egun arau horren aldaketa bat izapidetzen ari direla parlamentuan, dauden arau-hausteak sendotzeko eta, hala, etxebizitzaren errentamendu kontratuaren informazioa emateko betebeharren ikuskapen eta zehapen araubidea errazteko. Horri esker, prezioak kontrolatzen ahalko dira, bereziki tentsiopeko etxebizitza merkatuaren zonaldeetan.

Galdera: Zein izanen da zehapen organoa prozedura horietan?

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 241/2023 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriarekin bat, etxebizitzaren arloko zehapenak ezartzeko esku-mena Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiaren titularri dagokio.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 23an

Hirugarren lehendakariordea eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00172. Galdera, Etxebizitza Kolaboratiboen Programari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Etxebizitza Kolaboratiboen Programari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko apirilaren 30eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-00172 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galdera-sortari erantzunez:

Galdera: Zertan da gaur egun Etxebizitza Kolaboratiboen Programa?

Etxebizitza Kolaboratiboen Programaren helburua da profesionalen, herritarren, gizarte zibileko erakundeen eta etxebizitza kolaboratiboari buruzko ekimenen arteko ikaskuntza eta trukea sustatzea, etxebizitza eskuratzeko formula berri gisa, haien eskuragarritasun iraunkorra bermatzeko.

Gaur egun, Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiaren Berrikuntza, Parte-Hartze, Ikuskapen eta Hedapen Zerbitzua arduratzen da Foru Komunitatean etxebizitza kolaboratiboaren arloko ekintza bultzatzeaz. Alde horretatik, azken urte eta erdian, zerbitzuak hainbat ekimen garatu ditu herritarrei eta interesa duten entitateei etxebizitza eskuratzeko modalitate horren berri emateko, eta, horrez gain, proiektu zehatzak gauzatzea bultzatzea dezaketen entitateen eta kooperatiben sarea egituratzea sustatzeko.

Horretarako, joan den urteko otsailetik sektorearentzako hainbat partaidetza saio egin dira, eta zuzendaritza nagusiko teknikariak hainbat herritara joan dira horri buruzko informazio hitzaldiak emateko, zehazki, Doneztebe, Iruztun, Burlata, Lizarra, Irunberri, Tafalla eta Tuterara. Gainera, Nafarroako Gobernu Irekia orrian gai horren inguruko partaidetza prozesu bat dago martxan.

Saio horietan bildutako informazioa funtsezkoa izan da informazioa emateko, baina baita zuzendaritza nagusia arlo horretan garatzen ari den hiru ekimen nagusiak bideratzeko ere: etxebizitza kolaboratiboari buruzko foru legearen proiektua idaztea, laguntzen deialdi bat abiaraztea eta ekimena sustatzeko talde tekniko bat eratzea.

Galdera: Zer garatu da joan den ekainean egin ziren berri emateko lurralde saio haietatik orain arte?

Etxebizitza kolaboratiboari buruzko foru legearen proiektua idazteko, 33 pertsonak osatutako talde sustatzaile bat eratu zen. Sektoreko, administrazio publikoko, eta unibertsitateetako ordezkariak eta gaian adituak osatu zuten. Aurreikusten denez, parlamentuko izapideei 2026aren hasieran ekinen zaie.

Gainera, eta esan bezala, laster dirulaguntzen deialdi bat argitaratuko da, kooperatibei laguntza emate aldera eratu aurreko prozesuetan, hastapenetan eta lehen proiektuen idazketan.

Azkenik, Nasuvinsa sozietate publikoari egindako enkargu baten bidez, talde tekniko bat eratu da etxebizitza eskuratzeko eredu horretan interesa duten pertsonen laguntzeko eta lurzoru publikoetan hainbat proiektu pilotu abian jartzea bultzatzeko; lankidetzako publiko-komunitarioko hitzarmen bat izapidetuko da horretarako.

Galdera: Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak berri emateko lurralde hedapeneko saio horiei buruz?

Balorazioa oso positiboa izan da. Saioekin, ereduaren interesa duten kooperatiben sarea egituratzea lortu da; Koobizitza elkartearen inguruan bildu dira horiek. Garatu diren partaidetza prozesuetan, jende asko bildu da eta partaidetza handia izan da. Horrek erakutsi du ereduarekiko interesa dagoela, baina baita ezjakintasun handia ere, ez bakarrik herritarren aldetik, baita teknikarien eta udal ordezkarien aldetik ere.

Galdera: Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil Etxebizitza Kolaboratiboaren Programaren garapenari eta denborari buruz?

Duela gutxi bukatu da etxebizitza kolaboratiboari buruzko etorkizuneko foru legearen zirriborroaren kontsulta publikoko prozesua. Aurreikuspenen arabera, datozen hilabeteetan amaituko da testua, uda ostean berriz ere martxan jartzeko partaidetza prozesua. Alegazioak ebatzi eta dagokion izapidetze administratiboa egin ondoren, baliteke Nafarroako Gobernuak 2026ko lehen hilabeteetan onestea foru lege proiektua; hala, parlamentuan izapidetzeko prest egonen da.

Dirulaguntzen deialdiari helduta, oinarri arautzaileen behin betiko bertsioa zehaztu ostean, berehala izapidetze administratiboaren prozesua hastea aurreikusten da, eskaerak urteko bigarren erdian ebatzi ahal izateko.

Azkenik, talde teknikoaren ekintzari dagokionez, Koobizitza elkarteak, Nasuvinsak eta interesa duten udalek sinatuko duten hitzarmen baten zirriborroa idazten ari da. Hitzarmen hori erreferentzia esparru izanen da lurzoru publikoa edo udal jabetzako eraikinak lagatzeko, etxebizitza kolaboratiboaren proiektuak garatze aldera. Taldea dinamizazio lana ari da egiten sektoreko profil teknikoko eragileekin, eta, horrez gain, aholkularitza ematen die hala eskatzen duten toki entitate guztiei.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 23an

Hirugarren lehendakariordea eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria:
Begoña Alfaro García

11-25/PES-00173. Galdera, Betizuen presentziak Nafarroako ganaduarentzat ekar ditzakeen osasun-arriskuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Betizuen presentziak Nafarroako ganaduarentzat ekar ditzakeen osasun-arriskuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES-00173 idatzizko galdera egin zuen. Bada, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

– Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du betizu basatuen presentziak Nafarroako ganaduarentzat ekar ditzakeen osasun arriskuei buruz, eta zer jarraipen, kontrol eta prebentzio neurri ezartzea aurreikusten du departamentuak abelburuak kutsatzea edo afekzioak izatea saihesteko?

Animalia “basati” horiek etxeko abereen osasunari eragiten dioten mehatxua hainbat alderdiren araberkoa izanen da; hona hemen alderdi nagusiak:

1. Populazioaren osasun egoera.

2. Etxeko abereen eta abere basatien arteko elkarrekintza. Elkarrekintza hori zuzena edo zeharkakoa izaten ahal da.

Bi baldintzatzaile horiek animalia basatien populazioaren tamainarekin dute zerikusia; populazioa hazten bada, elkarrekintza gehiago izanen dituzte etxeko abereekin, eta, hala, patogeno bat populazioaren barruan ezartzeko aukerak ere gora egiten du. Beraz, garrantzitsua da animalia basatien populazioa kontrolatzea.

Orain betizuen populazioa ez da oso handia, baina haz ez dadin zaindu behar dugu.

Osasun egoerari dagokionez, Abeltzaintza Zerbitzuak animalien populazio horren laginak hartu ditu gaixotasunik dagoen ikertzeko. 2023ko

irailean, istripua izan zuen animalia baten lagina hartu zen. 2024ko uztailean, bost animalia hil ziren Urdazubin, zer-nolako osasun egoera zuten jakiteko. Lortutako laginekin egindako diagnostiko probetan ez genuen gaixotasunik detektatu.

Halaber, 2025eko otsailean, errepidean izandako istripu bat izan ondotik hil zen animalia baten laginak hartu ziren. Ez dugu gaixotasunik detektatu lagindutako 7 animalietan. Zaintza egiten jarraitzea dago aurreikusita. Horrez gain, Frantziako agintariek laginketa puntualak egiten dituzte betizuen bi taldeetan —bata Urdazubi inguruan dago eta bestea Ibardin inguruan—, eta azterketa horien berri eman ohi digute.

Bestalde, jakinarazi nahi dugu une honetan ABENA proiektua ari dela garatzen Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen barruan. Proiektu horren helburua betizu populazioei eragiten dieten erronka klimatiko, sozial eta ingurumene-koei aurre egiteko irtenbide bateratuak bilatzea da. ABENA proiektuan, Frantziako, Gipuzkoako eta Nafarroako egiten ari diren lana eta dauden arazoak partekatzen dira. Toki entitateek hartzen dute parte.

– Nafarroako Gobernuak aurreikusten al du berriazko protokolorik ezartzea antzeko abandonu, utzikeria edo kontrol faltako egoerak Nafarroako abeltzaintza ustategietan ugaltzea saihesteko, batez ere mugaldeko eremuetan edo iristeko zailak diren eremuetan?

Egungo araudiaren arabera, abandonatutako animaliak detektatzeko eskumena udalerriena da. Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza Zerbitzura egoera horrek ukitutako toki entitateen eta bizilagunen kontsultak iristen dira. Horiei aurre egiteko, araudian zer aukera dauden jakinarazten zaie.

Bestalde, Abeltzaintza Zerbitzuak bilerak egin ditu Frantziako gure homologoekin. Bertan, informazioa partekatu dugu, eta neurriak ezartzeko eskatu diegu animalia basatu horiek Nafarroara igaro ez daitezen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 28an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00174. Galdera, A-1 autobian bidesariak ezartzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak A-1 autobian bidesariak ezartzeari buruz egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galde-
ra 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Ezein alderdiri atxikita ez dagoen foru parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak 11-25/PES-00174 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, A-1 autobian bidesariak ezartzeari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galdera-sortari erantzunez:

1. Zein da A-1 autobian bidesariak ezartzearen ondoriozko urteko diru-sarreraren aurreikuspena, eurotan? Adierazi kalkulu horren oinarri den dokumentu ekonomiko zehatza.

A-1 autobian bidesariak ezartzearen ondoriozko urteko diru sarreraren aurreikuspena hau da:

Autovia A-1	
Año Natural	Importe canon
2026	2.789.545,29
2027	8.672.908,56
2028	9.014.304,55
2029	9.369.210,85
2030	9.739.988,74
2031	10.122.959,37
2032	10.520.988,60
2033	10.934.664,26
2034	11.364.608,39
2035	11.811.454,97

Zenbatespen horrek Europako Batzordera bidalitako dokumentazioa du oinarri, zehazki, azpiegitura bakoitzeko tasak barne hartzen dituen bidesari araubide bat aplikatzeko baimena ematekoa.

2. Zein izanen da A-1 errepidetik egunean 50 kilometroko ohiko ibilbidea egiten duen nafar batek ordaindu beharko duen batez besteko kostua urtean, eurotan? Zehaztu zer metodo erabili den kalkulua egiteko.

Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzeari buruzko uztailaren 1eko 23/2022 Foru Legearen 3. artikuluko ("Sortzapena eta ordainketa") 2. puntuaren arabera, erabilera kanona ordaintzera behartuta daude kanon hori atxikita daukaten bideetatik zirkulatzen duten ibilgailu astunen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak.

Halako ibilgailutzat joko dira motordun ibilgailuak edo ibilgailu artikulatuen multzoak, gehieneko masa baimendua 3,5 tona baino handiagoa izanda errepidezko salgai garraiorako baizik ez direnak edo horretarako baizik erabiltzen ez direnak.

3. Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen ofizial du, ibilgailuen portzentajea eta bolumena adierazita, bidesaria ezartzearen ondorio zuzen gisa A-1 autobioako trafikoaren alaketari buruz? Aipatu zer txosten teknikotan oinarritzen den aurreikuspen hori.

Bideetako tarteen eguneko batez besteko intentsitatearen datu historikoekin, 2015etik 2019ra, estazio guztien batez besteko hazkunde tasa (i) zehaztu da, honela:

$$i = \left(\frac{IMD \text{ año final}}{IMD \text{ año inicial}} \right)^{\frac{1}{n}} - 1$$

Lehen eta azken urtearen arteko urte kopurua da “n”.

Horrela, edukiera estazio bakoitzerako, 2015 eta 2019 arteko hazkunde tasa (Tm) lortzen da. Taula honetan jaso ditugu:

Nº	Localización	Ctra.	Categoría	PK ini.	PK fin.	2015	2016	2017	2018	2019	Tm (%)
54	Ziordia	A-1	Permanente	391,68	397,23	20022	19841	20799	22123	21924	2,29%
55	Etxegarate	A-1	Semipermanente	397,23	405,45	14542	14881	15412	15490	16263	2,84%

Bideko tarte bakoitzaren hazkunde tasarekin, bidearen batez besteko hazkunde tasa zehazten da —korridore bakoitzeko balio bakarra—:

	Tasa de crecimiento medio (%)
A-1	2,6%

Bestalde, FOM/3317/2010 Agindua dago, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren trenbide azpiegituren, errepideen eta aireportuen herri lanen efizientzia hobetzeko.

Bertan, errepide sare nazionalean aurreikusitako hazkunde tasak ezartzen dira, taula honetako balioekin:

INCREMENTOS DE TRÁFICO A UTILIZAR EN ESTUDIOS	
PERIODO	INCREMENTO ANUAL ACUMULATIVO
2013-2016	1,12%
2017 en adelante	1,44%

Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren 5/2014 zerbitzu oharrean zehazten denez (“Errepideei buruzko informazio azterlanen, aurreproiektuen eta proiektuen trafiko azterlanak egiteko preskripzioak eta gomendio teknikoak”), zirkulazioa iragartzeko balio horiek erabili behar dira.

Erreferentzia ofizialetan ezarritakoez bestelako hazkunde tasak erabiltzea proposatzen bada epe luzerako trafikoari dagokionez, horiek behar bezala justifikatuko dira, eta azterlanaren edo proiektuaren zuzendariari jakinaraziko zaio zergatik

gomendatzen den bestelako balioak izatea kon-tuan. Hark erabakiko du onetsi edo ez.

Hazkunde tasa aplikatua: azkenik, Nafarroako Gobernuak emandako edukiera historikoen datuak eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren aginduan zehaztuta-ko balioa aztertu ostean, bide guztien eskaria aurreikusteko, datu historikoetatik lortutako hazkunde tasaren eta aginduan ezarritako balioaren arteko batezbestekoa egin eta hori hazkunde tasa gisa aplikatzea erabaki da. Taula honetan bildu dira baliook:

	Tm	Tm orden	Media Tm
A-1	2,6%	1,44%	2,0%

2019. urteko eguneko batez besteko intentsitatearen datuak urteko balioetara zabalduta eta batez besteko hazkunde tasak aplikatuta, 2071. urtera arteko hazkundeak kalkulatu dira —azterlan ekonomikorako zehaztutako urteetakoak dira

	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032	2033	2034	2035
IMD	6.735,89	6.870,61	7.008,02	7.148,18	7.291,15	7.436,97	7.585,71	7.737,42	7.892,17	8.050,02
PESADOS I	606,23	618,35	630,72	643,34	656,20	669,33	682,71	696,37	710,30	724,50
PESADOS II	6.129,66	6.252,26	6.377,30	6.504,85	6.634,94	6.767,64	6.903,00	7.041,06	7.181,88	7.325,51

Aurreikuspen horrek Europako Batzordera bidalitako dokumentazioa du oinarri, zehazki, azpiegitura bakoitzeko tasak barne hartzen dituen bidesari araubide bat aplikatzeko baimena ematekoa.

Neurri horren bidez, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzeari buruzko uztailaren 1eko 23/2022 Foru Legea betetzen da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babeste-

horiek—, eta urte bakoitzerako urteko intentsitateak lortu dira bide bakoitzean.

2026-2035 hamarkadarako aurreikusitako datuak arestian deskribatutakoaren arabera kalkulatu dira. Hauek dira:

ko legerian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00175. Galdera, Elkanoko Javier Egoitzako hazteri-agerraldia (sarna) konpontzen saiatzeko neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Elkanoko Javier Egoitzako hazteri-agerraldia (sarna) konpontzen saiatzeko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak 11-25/PES-00175 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Elkanoko Javier egoitzan hazteri agerraldia konpontzeko ezarritako neurriei buruz. Bada, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galdera-sortari erantzunez:

– Zer neurri ezarri dituzte Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Osasun Departamentuak Elkanoko Javier egoitzako hazteri agerraldia (sarna) konpontzen saiatzeko?

2025eko otsailaren 17an, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak hazteri kasu baten berri izan zuen Elkanoko Javier egoitzan. Une horretatik aurrera, maiz hitz egin da egoitzako zuzendariarekin eta erizainarekin.

Horrelako egoerarako protokoloen aplikazioa gainbegiratu eta koordinatu da, ebidentzia zientifikoan oinarrituta. Protokolook alderdi hauek hartu dituzte barne:

- Egoiliarren eta langileen balorazio klinikoa egitea; horri esker, beste hazteri kasu batzuk detektatu ahal izan ziren.
- Detektatutako kasuen tratamendua planifikatzea eta aldi berean ematea.
- Kasu baten kontaktu hurbiltzat jotzeko baldintzak zein egoiliarrek eta zein langilek betetzen zituzten zehaztea, profilaxia emateko haiei.

- Kontaktuak izan ziren langileei profilaxia modu sinkronikoan emateko jarraibideak ematea, laneko arriskuen prebentziorako Asepeyo mutualitatearen edo osasun etxearen gainbegiradapean eta agindupean.

- Kasuen etxeko kontaktuei osasun etxera joateko gomendatzea, infekziorik ez dutela egiazta-zeko edo profilaxia jasotzeko.

- Kasuen oheko arropa, eskuoihalak eta arropa 60 °C-tan garbitzea.

- Xurgagailua ondo pasatzea lesioekin kontaktua izan duten eta garbitu ezin diren ehunezko objektu tapizatueta (alfonbrak, sofak, koltxoia). Ondoren, plastikoz bildu ziren edo zazpi egunez apartatuta eduki ziren, protokoloek diotenaren arabera.

- Egoeraren jarraipena egitea, gerta daitezkeen gaixoberritzeak detektatzeko, eta esku-hartzea errepikatzea, kasu guztiak sendatu direla egiazta-arte.

– Elkanoko Javier egoitzak ezarri al ditu Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Osasun Departamentuak helarazi dizkieten osasun neurri guztiak?

Bai.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak helarazitako neurriak aplikatzeko orduan, Javier egoitzako arduradunek profesionaltasun handia, inplikazio ona eta arreta erakutsi dute hasieratik. Era berean, informazioa arazorik gabe eman dute eta jarduketak behar bezala koordinatu dituzte osasun etxearekin eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin.

– Javier egoitzak neurriak ezarri baditu eta agerraldiak aktibo jarraitzen badu, zer beste ekimen proposatzen dira kutsadura konpontzeko?

Lehenengo tratamenduaren ondoren egindako jarraipenari esker, gaixoberritzeak garaiz detektatu ahal izan ziren. Berrito gaixotzea ez da arraroa horrelako instituzioetan. Ikusi zutenez, baliteke arazoa tratamendu topikoa emateko zailtasunaren ondorio izatea, erabiltzaile batzuen desgaitasuna zela eta. Farmakoarekiko erresistentziarik ere ez dira bazterten. Horregatik, ahotik hartzen den farmako batekin egin zen tratamendua, eta, horrela, kasuak sendatzea lortu zen.

Apirilaren 28an, azken kasuaren sintomak igorri zituzten, eta ordutik ez da beste hazteri berragertzerik antzeman.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak gai horren inguruko gorabeherak zainduko ditu datozen hilabeteetan.

– Eta Elkanoko Javier egoitzak neurri guztiak ezarri ez baditu, zer ekimen hartu dira agerraldiak ukitutako pertsonen osasuna bermatzeko, eta zer neurri hertsatzaile hartu dira Javier egoitzarekin, arretarik eza zuzen dezan?

Neurri guztiak behar bezala ezarri dira, eta ez da inolako arreta faltarik antzeman. Ez da neurri hertsatzailearik hartu behar.

Hartutako neurriei esker, Javier egoitzako hazteri agerraldiarekin amaitzea lortu dela dirudi.

Hazteria berrito sartzeko ahal da egoitzan bisten bidez edo erabiltzaileek familiekin egiten dituzten irteeren bidez. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak gomendioak eman ditu kasu posibleak goiz detektatzeko eta egoitza barruan kutsatzeak saihesteko neurri azkarrak hartzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00176. Galdera, Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berriari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berriaren gainean egindako 11-25/PES-00176 informazio-eskaerarekin lotuta, honako hau jakinarazten dut Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria naizen aldetik:

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua Donejakue Bideari buruzko Plan Integrala egiteko lanetan murgilduta dago, 2027an plangintza oso-rik garatzea helburu.

Egiten ari diren hasierako lanak bidea bera eta ondare historikoa hobetzearekin lotuta daude, irisgarritasuna, energia-efizientzia eta ondare turistikoa eta monumentala argizatzea xede. Tokiko erakundeek ere lanotan parte hartzea bultzatzen ari gara. Ekintzek bidearen digitalizazioa ere badute helburu, eta, horretarako, besteak beste, honako hauek hornitzea aurreikusten da: komunikazioa eta segurtasuna hobetzeko wifi puntuak, fluxu sentsoreak, eta erabiltzaileen jokabidearen

eta ohituren informazioa emanen duten datuak eta *big data* kudeatzeko sistema aurreratu bat. Donejakue bideko azpiegiturretan dauden gabeziak eta puntu beltzak detektatzea eta hobetzea ere aurreikusita dago.

2027ko Done Jakueren Urte Santua prestatzeko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren plangintzak, kultur ondarearen errehabilitazioarekin eta kontserbazioarekin lotutako ekintzak ere jasotzen ditu, Nafarroako Bideko hiru monumentu gaketan esku hartuz: Lizarrako Hilobi Santuaren eliza, Viának Andre Maria eliza, eta Zangozako Done Salbatore eliza.

Ondare immaterialaren arloan, Nafarroako Gobernuak Erromesen Harrera ondare immaterialaren agerpen adierazgarri gisa aitortzeko espediente berri bat martxan jartzea bultzatu du.

Aurreikusitako beste ekintzetako bat, kultur mezenasgoaren sustapena da, horretarako zerga pizgarriak berreskuratuz eta zabalduz, 2027ko Done Jakueren Urtearekin lotuta mezenasgoko marko berezi bat sortuz.

Bien bitartean, Estatu eta Europa mailan antolatutako ekitaldi eta programa ofizialekin koordinatuta jarduteko lanean ere ari gara, bai eta Nafarroan garatu beharreko ekintzen eta jardueren programa zehatza definitzeko eta lotzeko lanetan ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 3an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00177. Galdera, "Kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua" sortzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak "Kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua" sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak "Kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua" sortzeari buruz egindako 11-25/PES-00177 informazio-eskaerarekin lotuta, honako hau jakinarazten dut Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria naizen aldetik:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren egiturari, Kirol Bitartekaritzarako Bulegoa dago, kirol arloan sortzen diren gatazkak ebaztera bideratuta dagoen zerbitzua.

Kirolean ematen diren eraso sexisten auziari heltzeko beharra jorratzen duen 11-23/MOC-00062 mozioa onartu ondotik, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua harremanetan jarri zen Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin, helburu hartuta elkarrekin planifikatzea zer irizpidek ahalbidetuko duten dagoeneko bi erakundeotan existitzen diren zerbitzuak modu eraginkorragoan antolatzea.

Horiek horrela, bi erakundeok jarduketako barne-prozedura bat landu dute, non Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko Bitartekaritzako Bulegoaren eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren Emakumeen aurkako Indarkeriaren Atalaren arteko koordinazio-mekanismoak ezartzen diren honako hauek helburu hartuta:

– Erantzun azkar eta eraginkorra ematea.

– Kasuen identifikazio goiztiarra ahalbidetzea.

– Biktimek babes integrala eta laguntza osoa jasotzea bermatzea, barne hartuta laguntza psikologikoa, legala eta medikoa.

– Alderdi guztiek prozedura berak izatea eta erabiltzea bermatzea, nahasmenduak saihestuz eta biktimek erantzun koherentea eta koordinatua jasotzea ziurtatuz.

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren arteko lan koordinatuak eskuragarri dauden baliabideak optimizatzea ahalbidetuko du, bai eta aurrerapausoak ematea kirol arloan ematen diren eraso edo indarkeria egoera sexistei aurre egiteko zerbitzu espezializatu bat inplementatzeko, sentikortasunez eta bizkortasunez jokatu duen zerbitzu bat. Jarduketa bateratu honen helburua da prebentzioa, sentsibilizazio eta ukitutako pertsonen babes indartzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00178. Galdera, kirol-plangintzan osasun mentalerako arretaren ikuspegia sartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak kirol-plangintzan osasun mentalerako arretaren ikuspegia sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak egindako kirol-plangintzan osasun mentalaren arretaren ikuspegia sartu al den jakiteko egindako 11-25/PES-00178 informazio-eskaerarekin lotuta, honako hau jakinarazten dut Nafarroako Gobernu-ko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria naizen aldetik:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua, uneotan lantzen ari den Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Plan Estrategikoa dokumentuari lotzen zaio, bertako ekintza-

lerro nagusien artean jasoko baita kirola eta jarduera fisikoa sustatzea osasun mentala hobetzeko erreminta gisa. Era berean, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua, zenbait erakunderekin elkarlanean, lanean ari da “Burua jokoan” proiektuan. Ekimenaren ardatza kirolean gurasotasun positiboa sustatzea da, betiere osasun mentalaren eta ongizate emozionalaren ikuspuntua oinarri hartuta. Proiektua Fútbol Más Fundazioarekin, ANASAPS Osasun Mentalerako Nafarroako Elkartearekin, Álex Remiro Fundazioarekin eta Rural Kutxarekin elkarlanean ari da garatzen, helburu hartuta haurrentzat eta nerabeentzat akonpainamendu osasungarriko inguruneak sustatzea kirol jardueran.

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak, jarraitzen du aliantzak eta ekintzak garatzen osasun fisikoa ez ezik, oreka emozionala, erresilientzia eta pertsonen garapen integrala ere bultzatuko dituen kirol jarduera bermatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00180. Galdera, oinarrizko gizarte-zerbitzuen finantzaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak oinarrizko gizarte-zerbitzuen finantzaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak 11-25/PES-00180 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, honako honi buruz:


Zer kontrol-protokolo edo -mekanismo erabiltzen du Nafarroako Gobernuak Gobernuaren eta toki-entitateen arteko finantzaketa-hitzarmenei dagokienez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako lan-gileen finantzaketaren azken xedea bermatzeko?

Nafarroako Gobernuak zer balorazio politiko egiten du CCOOK egindako salaketaren arabera lanpostu bera duten langileek, gehienak emakumeak, ordainsari bera ez jasotzeari buruz lan egiten duten mankomunitatearen edo toki-entitatearen arabera?

Aurreikusita al dauka Nafarroako Gobernuak kontrol-mekanismo berriren bat ezartzea?

Bada, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa sistema arautzen dituen uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren III.



Formulak hainbat elementu ditu (besteak beste, oinarrizko talde profesionalaren kostua), baina horietako bat bera ere ez da finalista. Gastu orokorra zenbateteko sistema da, aldez aurreko justifikaziorik gabe ordaintzea ahalbidetzen duena.

48/2020 Foru Dekretuaren 23. artikuluan ezarzen da kontrol prozedura:

“3. Oinarrizko gizarte zerbitzuaren titular den toki-entitateak justifikatu beharko du, gutxienez, Nafarroako Gobernuaren ekarpenaren % 20, berariazko kostuen kontzeptuan, gizarteratze eta/edo larrialdi sozialeko prozesuetan sostengua emateko jarduketetan. Kasu horretan, udal ziurtagiriaren bidez justifikatuko dira, zeina lortuko baita Nafarroako Gobernuak horretarako ezartzen duen aplikazio informatikotik.

4. Organo kudeatzailek egiaztatuko du aurreko apartatuetan adierazitakoa, eta aldeko txostena egingen du baldin eta toki-entitateak:

– Oinarrizko talde profesionalako langileak badiu, lankidetzaz hitzarmenenean finkatzen direnak.

– Gastu justifikatu guztia bada lankidetzaz hitzarmenenean kostu zenbatetsi gisa jasotako zenbatekoa adinakoa edo hori baino handiagoa”.

Horrela, artikulua hori kontuan hartuta, autonomia erkidegoko administrazioak bermatu behar du finantzaketa oinarrizko lau programak garatzera

Kapitulua ezartzen du toki-entitateen finantzaketa, ordaintza eta justifikazio modua.

Bigarren atalean, finantzaketa irizpideak arautzen ditu, kostua kalkulatu eta zenbateteko metodo gisa, oinarrizko gizarte zerbitzu guztientzat homogeneoa eta Nafarroako Gobernuaren berezko kostuekin koherentea.

Kalkulu formulak elementu hauek ditu: egiturazko kostuak (oinarrizko talde profesionalaren soldata kostua + funtzionamendu kostuak + sakabanatze kostuak), berariazko kostuak, eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen etxeko arretarekin lotutako kostuak. Halaber, Foru Komunitateari (FK) eta toki-entitateari (TE) zer finantzaketa ehuneko dagokien zehazten du.

bideratzen dela. Alderdi hauek egiaztatu beharko ditu: toki-entitateak arestian deskribatutako formularen bidez zenbatetsitako zenbatekoaren berdina edo handiagoa den gastua egin duela; gizarteratze prozesuei edo gizarte larrialdietarako prozesuei laguntzeko jarduketei dagokien gastua egin duela; eta dagokion oinarrizko talde profesional osoa duela.

Azken alderdi horren kasuan, kontrol prozedurak profesionalen kopuruan oinarritu behar dira, eta ez toki-entitateak ordaintzen dituen ordainsarrietan; entitate bakoitzaren eskumen eremuari dagokio hori. Hala eta guztiz ere, lankidetzaz hitzarmenenean eta dagozkien eranskinen bidez, Gobernuak modu zehatzean ematen dio entitate bakoitzari oinarrizko talde profesionalarentzat zenbatetsitako kostuaren berri, entitateak jakin dezan eta ordainsariak artikulatu ahal izan ditzan, foru administrazioarenak behintzat. Nabarmen-tzekoa da, halaber, zenbait toki-entitatek Nafarroako Gobernuko langileentzat ezarritakoaren gainetik ordaintzen dietela beren profesionalai.

Beren autonomiaz baliatuz, toki-entitateek berek zehazten dituzte langileen ordainsariak, eta horregatik daude ordainsari desberdinak lanpostu berdinean, zerbitzuak ematen diren gizarte zerbitzuetako mankomunitatearen edo udalerraren arabera.

Toki-autonomiaren printzipio hori Espainiak berretsitako 1985eko Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean eta Konstituzioaren 140. artikuluan aitortzen da —udalerrien autonomia bermatzen du artikulua horrek—, bai eta Estatuko nahiz foru mailako hainbat arautan ere.

Zehazki, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, bai 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileriaren estatutuaren testu bategina onesten duenak, bai uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen ordainsariei buruzko behin-behineko erregelamendua onesten duenak, ordainsari sistema bat arautzen dute Nafarroako administrazio publiko guztientzat. Bi zati ditu: zati komuna (oinarrizko ordainsari pertsonalak) eta zati aldakorra (ordainsari osagarriak, besteak beste, lanpostuko osagarria). Zati aldakor horren bidez, nolabaiteko erabaki tartea dute toki-entitateek, eta haietako bakoitzak, aitortuta duen autonomiaren arabera, langileen ordainsariak ezartzen ahal ditu, egoki irizten dion neurrian.

Ildo horretan, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak toki-autonomia eta legez ezarritako eskumen sistema errespetatu besterik ezin du egin, nahiz eta horrek berekin ekartzen ahal duen, gizarte zerbitzuen eremuan ez ezik, funtzio publikoaren beste eremu batzuetan ere, lanpostu berdinean ordainsari desberdinak izatea toki-entitateetan.

Kontrol mekanismo berrien harira, azpimarratu behar da, erantzun honetan zehaztu den bezala, Nafarroako Gobernua zorrotz aplikatzen ari dela gizarte zerbitzuen finantzaketaren arloko araudia, toki-entitateen eskumenak eta autonomia errespetatuta.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 4an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00181. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan paziente euskaldunei ematen zaien logopedia-arretari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan paziente euskaldunei ematen zaien logopedia-arretari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak 11-25/PES-00181 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Osasunbidean logopediako arreta euskaraz emateari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilaria naizen aldetik,

honako hau jakinarazten dut egindako galderasortari erantzunez:

Euskara nahitaezkotzat jo al da Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoko lanposturen batean?

Ez. Ez da betekizuna logopeda lanpostuetan. Zazpi logopeda lanpostu ofizial daude, eta itxaron-zerrendak murrizteko egiturazko plaza bat. Zazpi lanpostu ofizialak Nafarroako Ospitale Unibertsitarioarenak dira eta euskara merezimendu gisa dute. 1. eranskin gisa gehitu da: 2025-PES-00181 Plantilla Logopedas 19.05.2025.

Onartu edo egin al da logopeda-lanpostu bat lortzeko euskara nahitaezkoa den lan-eskaintza publikorik?

Ez, ez da deialdirik egin.

Onartu edo egin al da logopeda-lanpostuetarako euskararen ezagutza baloratzen den lan-eskaintza publikorik?

2002tik ez da euskara betekizuna duen lanposturik deitu. 2022an, egonkortze prozesuan, betekizuna zuen lanpostu baten deialdia egin genuen, Funtzio Publikokoa (egonkortzeak eskumenak esleitu zizkigulako egin genuen deialdia).

Kontratatu al da logopediako profesionalen bat, modu finkoan edo aldi baterako, behar besteko prestakuntza duena ziurtatzeko paziente horiei arreta euskaraz emanen zaiela?

Euskaraz jakitea ez da eskatu inongo kontratazioetan, ez delako betekizuna.

Zer ekimen abiarazi du Osasun Departamentuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan artatzen diren paziente euskaldunei logopedia-arreta bermatzeko?

Arreta euskaraz emateko aukera areagotzeko, martxoan Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari proposatu zitzaion plantilla organikoan hutsik dauden edo titularra duten logopeda lanpostu guz-

tiei euskararen ezagutzaren merezimendua esleitzea, lekualdatze lehiaketetan balora dadin, edo, kasua bada, lanpostu hutsetarako, lehiaketa-oposizioen lehiaketa fasean. Plantillaren aldaketa maiatzaren 7an onetsi zen, Mahai Sektorialean negoziatu ondotik, eta maiatzaren 8ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ba al dago logopediako profesionalik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan euskaldunei euskarazko arreta bermatzeko, eta, hala ez bada, zein epetan bermatu nahi da arreta hori?

Profesional titularretako bik A1 eta B1eko ezagutza maila dute.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00182. Galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako Plan Estrategikoko parte-hartze prozesuaren faseei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako Plan Estrategikoko parte-hartze prozesuaren faseei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak 11-25/PES-00182 informazio-eskaera egin zuen, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Plan Estrategikoa onesteko atzerapenari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria nizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Plana onesteko fasea hasiera batean 2025eko martxorako zegoen aurreikusita, baina egutegia egokitu egin da. Egiten ari den lan teknogia eta estrategikoaren kalitateari lehentasuna emateko asmoarekin egin da aldaketa. Horretarako, denbora irizpideen ginetik plana modu zorrotz eta parte-hartzailean prestatzea lehenetsiko duen ikuspegia hartu dugu.

Gaur egun, parte-hartze publikorako prozesua 2025eko ekainaren amaieran irekitzea aurreikusten da. Parte-hartze prozesua egiteko eta ondotik ekarpenak txertatzeko behar den denboraren araberaren onetsiko da plana behin betiko.

Plana prestatzeko ardura duen enpresa adjudikazio-hartzailearekin hitzartutako kontratuaren baldintzei dagokienez, egindako aldaketek epeei bakarrik eragin diete. Aldaketa horiek beharrezkoak izan dira lan egutegia kronograma berrira egokitzeko, kalitatezko eta ahalik eta adostasun handieneko lana dela bermatzeko asmoarekin.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00183. Galdera, Betizu arrazako behiekiko istripu-kasuetako erantzukizunari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Betizu arrazako behiekiko istripu-kasuetako erantzukizunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak 11-25/PES-00183 idatzizko galdera egin zuen. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

– Betizuak tartean direla izandako istripu edo ezbeharren kasuan, nor da erantzulea? Nork hartzen ditu bere gain eragin ditzaketen kalteak?

Galderak Nafarroako Urdazubi herriaren inguruetan eta Baztango zenbait lekutan Betizu arrazako behiak agertu izanari egiten dio erreferentzia. Urdazubin atzemandako arazoa Betizu arrazako behi basatuek eragin dute. Frantzian kokatutako talde batetik datoz, eta batzuetan muga zeharkatzen dute.

Zerbitzu honek ezin du zehaztu nori dagokion istripuen ondorioz sortutako kalteen erantzukizuna; izan ere, ez gaude horien inguruabar zehatzen jakinaren gainean. Hala badagokio, ondarezko erantzukizuna zehazteko prozedurari eman behar-ko zaio hasiera.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32. artikulua arabera, hau behar da administrazio publikoaren erantzukizun deklarazioa bideragarria izateko:

a) Kalte-galeraren errealitate efektiboa, ekonomikoki ebaluagarria eta banakakoa, pertsona bati edo pertsona talde bati dagokienez.

b) Erreklamaziogileak ondarean jasandako kalte edo lesioa zerbitzu publikoen ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren ondoriozkoa izatea (kalifikazioak berdin dio), bai eta kausa-ondorio erlazio zuzen, berehalako eta eskusibo baten barruan gertatzea ere, kausaren loturaren aldaketan eragin dezaketen elementu arrotzik izan gabe.

c) Ezinbesteko arrazoirik tartean ez izatea.

d) Erreklamaziogileak ez izatea bere jokabide-arengatik berarengatik kaltea jasateko betebeharr juridikoa.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak hau azpimarratzen du: “administrazioak eragindako kalte oro ez da konpondu behar, baizik eta ordain daitekeen benetako lesiotzat hartuko da antijuridikotzat jotzen bada soilik, hau da, partikularrak administrazio jarduketaren ondoriozko kalteak jasateko betebeharr juridikorik ez badu” (Auzitegi Gorenaren 2014ko martxoaren 28ko eta 2017ko martxoaren 9ko epaiak, besteak beste).

Eta, era berean, erantzukizunetik salbuetsi behar da administrazioa, administrazioaren arauketaren izaera objektiboa gorabehera, kaltetuaren beraren jokabideak eragin badu kaltea (Auzitegi Gorenaren 2009ko ekainaren 24ko epaia, 2316/2005 Kasazio Errekurtsoa, eta bertan aipatzen direnak).

Horregatik, ezin da esan administrazioak erantzukizun orokorra duenik adierazitako lekuetan

Betizu arrazako behiak egotearen ondorioz izan daitezkeen istripuen aurrean.

Nolanahi ere, istripuok saiheste aldera koordinazioa ahalbidetzeko eskumenak ditu administrazioak hainbat esparrutan, eta beharrezkoa da horiei buruzko zenbait gai aipatzea.

Lehenik eta behin, Betizu arrazako behiek Nafarroan, EAEn eta Iparralden dute jatorria, eta foru komunitateko eta inguruko erkidego eta lurraldeetako administrazioek (batez ere Akitaniako eskualdekoak) arraza hori berreskuratzea sustatu izan dute, garrantzi ekonomiko eta soziala dutelako Nafarroako mendien mantentzeari dagokionez. Haien ustiapen sistema artzaintza eta abeltzaintza estentsiboa dira.

Nafarroan, lurraldeko Betizu arrazako behien jarraipena egiten da. Behar bezala identifikatuta eta titularraren izenean egon behar dute. Titularra izanen da sor ditzaketen kalteen erantzulea. Abereok identifikatuta izatearen nahitaezotasuna estatuko araudian eta Abereen Osasunari buruzko 11/2000 Foru Legean jasotzen da. Lege horren 10. artikulua ezartzen duenez, foru legearen xede diren abereek identifikatuta egon beharko dute, eta horien ustiatzea, jatorria edo paseko lekua (edozein unetako) aurkitzeko modua egonen da.

Identifikazioa ekainaren 13ko 728/2007 Errege Dekretuan jasotako behi espezieko animaliak identifikatzeko araudiaren arabera egiten da. Errege dekretu horrek abereen mugimenduen erregistro orokorra eta animalien banakako identifikaziorako erregistro orokorra ezartzen eta arautzen ditu.

Identifikatu gabeko animaliak agiririk gabekotzat hartzen dira (11/2000 FL, 22.3 art.), eta atxiki, ibilgetu eta/edo isolatu egin behar dira (11/2000 FL, 23. art.). Aprobetxamendu komuneko larreetara sartzeko identifikatuta egon behar dute (11/2000 FL, 30.1.c art.).

Abereen Osasunari buruzko 11/2000 Foru Legeak arau hauste administratibo gisa tipifikatzen du bai animaliak identifikatzeari buruzko betebeharrak ez betetzea (54.7.e art.), bai animalia biziak abandonatzea eta horiek ez zaintzea eta ez kontrolatzea (54.7.c art.), bai aprobetxamendu komuneko larreetan foru lege honetan azienda bazkatzeari buruz ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten aziendak sartzea (55.10 art.).

Abeltzaintza Zerbitzuak jakin ahal izan duenez, Urdazubi inguruan agertu diren Betizu arrazako behiak Frantziatik datoz. Bertan, Betizu arraza animalia basatua da eta ez du identifikaziorik behar. Hala bada, eremu horretako animaliek ez

dute identifikaziorik, eta, horien jabea aurkitzea ezinezkoa denez, abandonatutako animaliatzat hartzen ahal dira.

Abandonatutako abelburuen administrazio eta araubideari buruzko 1905eko apirilaren 24ko Errege Dekretuak abandonatutako abelburuei buruzko araudia jasotzen du. Honako hauek jotzen ditu abandonatutako abelburutzat: “edozein kopurutan eta jabe ezagunik gabe landetan, herrietan, abelbideetan edo beste leku publiko batzuetan abandonatuta dauden zaldi, mando, asto, behi, ardi, ahuntz edo txerri abelburuak”.

Azaldutakoaren arabera, istripua eragin duten abelburuek jaberik duten zehaztu beharko da, erantzukizuna norena den zehazteko eta argitzeke, edo, bestela, Frantziatik datozen; izan ere, bertan basatutaz hartzen dira eta ez daude identifikatuta.

Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legearen helburuetako bat mendietako artzaintza modu ordenatuan sustatzea da (3. art.). Horren arabera, foru administrazioari dagokio eremu jakin batzuetan bazkatzeko debekuak ezartzea eta artzaintzarako arauak ezartzea.

Abereen Osasunari buruzko 11/2000 Foru Legeak zehazten ditu bazkatzeko arauak. Horri jarraikiz, abereek identifikatuta egon behar dute, osasun baldintzak betetzen dituzten ustiategietatik etorri behar dute, eta ez dute gaixotasun infektokutsakor edo parasitarioen sintomarik izan behar (11/2000 FL, 30. art.).

Behar ez bezala bazkatzen bada, tokiko agintaritzaren zaintzapean geratuko da azienda, eta baso agintaritzak dagokion ebazpena eman beharko du (Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretuaren 126. artikulua).

Beraz, identifikatu gabeko Betizu arrazako abelburuei dagokienez, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko Foru Legean ezarritako prozedurara jo behar da.

Aurrekoa aipatuta, egia da administrazioaren betebeharra dela galtzadan oztoporik ez egotea, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legearen 57.1 artikulua xedatzen duenez. Horren arabera, bidearen titularrak zirkulaziorako ahalik eta segurtasun baldintza onenetan mantendu behar du bidea, eta bide seinale eta marka egokiak jarri behar ditu, baita horiek zaindu ere. Horrek esan

nahi du, nolanahi ere, galtzada libre mantendu behar dela, eta galtzada erabiltzeak berekin dakartzan arriskuak murriztu egin behar direla. Orobat, errepideko ibilgailuen zirkulazioa eragotzi edo zailduko duten oztopoak egon ahal badira, horiek behar bezala seinalezatzeko betebeharra du administrazioak.

Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Legearen 7. artikuluan, bide segurtasuna bermatzea ageri da jarduteko printzipioen artean: "Bide segurtasunaren hobekuntzak Nafarroako errepide sarean egiten diren jarduketa guztietan izan beharko du tokia.

Betiere errepidearen erabiltzaileentzako arriskua gutxitzea faboratuko da; horretarako, optimizatu eginen dira, bide segurtasunaren ikuspuntutik, babes-elementuak eta bide sarea osatzen duten bestelako elementuak".

Horrela, administrazioak bere titulartasuneko errepideak zaindu eta mantentzeko betebeharra du.

Aurrekoa esanda, 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarria aipatu behar da. Honela dio: "Zazpigarren xedapen gehigarria. Ehiza-espezieak harrapatzean eragindako trafiko-istripuen erantzukizuna.

Bide publikoetan ehiza-espezieak harrapatzean eragindako trafiko-istripuetan, ibilgailuaren gidaria izanen da pertsoneri edo ondasunei egindako kalteen erantzule, eta ezin izanen da bidean sartzen diren animalien balioa erreklamatu.

Nolanahi ere, egun horretan bertan egin den edo hamabi ordu lehenago amaitu den ehiza larriko talde-ehizako ekintza baten ondorioz gertatu bada trafiko-istripua, ehiza-aprobetxamenduaren titularra edo, halakorik ez bada, lursailaren jabea izanen da pertsoneri edo ondasunei egindako kalteen erantzule.

Istripua gertatu den bide publikoaren titularra ere izan daiteke erantzule, baldin eta istripua gertatu bada itxitura-hesia garaiz ez konpontzeagatik edo, animaliekin talka egiteak eragindako istripuen tasa handia duten bide-zatiak izanik, lotu gabeko animalien seinalerik ez izateagatik".

Betizu arrazako abelburuak Nafarroako mendietan egon ohi dira, eta abeltzaintza estentsiboa da haiek ustiatzeko modua. Ereku zabaletan ibiltzen dira, eta, batzuetan, errepideetatik gertu. Hori dela eta, baliteke gidariei eremu jakin batzuetanazienda dagoela ohartarazteko neurriak hartu behar izatea.

Hortaz, zehaztu behar da errepideko zer zatitan komeni den animalia solteak daudela ohartarazteko seinaleak jartzea, gidariek arreta handiz gida dezaten eremu horietan. Horretarako, Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin batera aztertuko dira eremuok, departamentu horrek baitu eskumena arlo horretan.

Azkenik, Abeltzaintza Zerbitzua Frantziako agintariekin jarri da harremanetan egoeraren berri emateko eta animalia horiek kontrolatzeko neurriak ezar ditzatela eskatzeko.

Bestalde, une honetan ABENA proiektua ari da garatzen Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen barruan. Proiektu horren helburua Betizu populazioei eragiten dieten erronka klimatiko, sozial eta ingurumenekoei aurre egiteko irtenbide bateratuak bilatzea da. Frantzian, Gipuzkoan eta Nafarroan egiten ari diren lana eta dauden arazoak partekatzen dira, eta toki-entitateek ere hartzen dute parte bertan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00184. Galdera, Bidean-ek langileak subrogatzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Bidean-ek langileak subrogatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00184 informazio eskaera egin zuen, Bidean-eko langileei buruz. Bada, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

Jakitera eman denez, Bidean-ek Baztan-Bidasoa eta SSG enpresetako 400 langile subrogatuko ditu. Bi enpresetako behin-behineko langileak sartuta al daude kopuru horretan? Bai, sartuta daude.

Bidean-ek kontratatuko dituen 24 langile gehigarri dagokienez, zer lanpostutan eta noiz hasiko dira lanean?

- Egiturazko zortzi lanpostu.
- Hamabi pertsona balio anitzeko talderako.
- Lau pertsona koordinaziorako.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00185. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren alokairu-kontratuari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mario Fabo Calero jaunak Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren alokairu-kontratuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariari atxikitako foru parlamentari Mario Fabo Calero jaunak 11-25/PES-00185 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, honako informazio hau eskatuz:

– Zer arrazoi dago sei hilabeteko iraupena duen kontratu bat sinatzeko?

– Departamentuak Martzillako Behaketa- eta Harrera-zentroa ixteko eta beste leku batera eramateko asmoa al du?

Bada, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua babes sistema eta haren baliabideak egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzeko eta dimentsionatzeko prozesuan dago, arreta jasotzen duten haurrei erantzun egokiena emate aldera.

Horrenbestez, eta erantzuna egokitzeko asmoz, erabaki da ez sinatzea epe ertainetik harago erabakiak baldintza ditzakeen iraupen luzeko kontraturik.

Horregatik, sei hilabeteko kontratua sinatu da, zeina behar izanez gero berritzen ahal den.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 3an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00186. Galdera, Nafarroako Ubidera konektatutako Leringo Edateko Uren Araztegia Toki Inbertsioetarako Planeko obretan ez sartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Ubidera konektatutako Leringo Edateko Uren Araztegia Toki Inbertsioetarako Planeko obretan ez sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz jaunak 11-25/PES-00186 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Nafarroako Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Osoaren Plan Zuzentzaileari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galdera-sortari erantzunez:

1. Nafarroako Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Osoaren 2019-2030 Plan Zuzentzailean jasotako aurreikuspenak aldatzea erabaki al du Nafarroako Gobernuak Estellerriari dagokionez?

Nafarroako Gobernuak ez ditu aldatu Nafarroako Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Osoaren 2019-2030 Plan Zuzentzailean Jurrmendiko Mankomunitatea eta Itoitz – Nafarroako Ubidea irtenbidea lotzearen inguruan ezarritako aurreikuspenak.

Plan zuzentzailea berrikusteko 2024tik 2025era bitartean egin diren lanen barruan, kanalera konektatzeko obren programazioa eguneratu da, bai eta Edateko Ura Tratatze Estazio berri baten exekuzioa ere —2029tik aurrera egikaritzen hastea aurreikusten da—.

2. Erantzuna baiezkoa baldin bada, zer prozeduraren bidez aldatu da plan zuzentzaile hori?

Arestian esan bezala, eutsi egin zaie Jurrmendiko Mankomunitatea eta Itoitz – Nafarroako Ubidea irtenbidea lotzeari dagokionez plan zuzentzailean jaso diren aurreikuspenei. Plangintza egungo egoerara baino ez da egokitu.

3. Zergatik ez dira sartu 2026-2028 Tokiko Inbertsioen Planean egin beharreko inbertsioen artean Mendazako putzuen gaineko presioa murrizte aldera Lerin inguruan Nafarroako Ubidearen sistemarekin konektatzeko aurreikusitako Edateko Ura Tratatze Estazioari buruzkoak?

Bigarren plangintzaldirako, lehentasuna eman zaie uraren kalitateagatik eta hornidura bermatzegatik premiazkoztat jo diren inbertsioei:

- Itxakoko Edateko Ura Tratatze Estazioa, Etxabarrin: Itxakoko ur bilketak uhertasun arazoak ditu, eta ez ditu betetzen urtarrilaren 10eko 3/2023 Errege Dekretuaren eskakizunak (3/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Kontsumoko uraren kalitatearen, kontrolaren eta horniduraren irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituena). Premiazko inbertsioa da, uraren kalitatearen ingurukoa delako.

- Mendazako hirugarren putzua: larrialdi egoeretan mankomunitatearen hornidura zerbitzua

mantentzeko inbertsioa da. Ez da proiektatzen Mendazako akuiferoaren erauzketa handitzeko, hornidura bermatzeko baizik.

- Morentinetik Arellanoko ponpaketa berrira doan hodia berritzea: premiazko inbertsioa da, mankomunitatearen zati handi bati zerbitzua ematen dion zuntz-zementuzko hodi zahar bat berritzeko baita.

Itoitz – Nafarroako Ubidea irtenbidera konektatzeko inbertsioak 22 milioi euro ingurukoak dira, eta faseka gauzatu beharko dira. Ezin izanen dira sartu 2026-2028 Tokiko Inbertsioen Planaren plangintzaldian.

4. Zergatik baztertu da Nafarroako Ubideko hornidura-inbertsio hori, eta zergatik eman zaie lehentasuna Plan Zuzentzailean Erriberako eremurako aurreikusitako guztiei, era berean Itoiz-Nafarroako Ubidea sistemarekin lotuko liratekeenei?

Erriberako eremua eta Nafarroako Ubidea 2021etik 2024ra bitartean lotzea zegoen aurreikusitako plan zuzentzailean. Nafarroako Ubidearen bigarren faseko administrazio izapideak oso aurreratuta daude, eta lehentasunezkoztat eta premiazkoztat jotzen da beharrezko konexioak egitea Erribera osoak kalitatezko ura izan dezan.

Lehen esan bezala, Montejurran beste inbertsio premiazkoago batzuk lehenetsi dira 2028ra arte.

5. Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak Plan Zuzentzailean Lerin inguruan egitea proposatzen zen Edateko Ura Tratatzeko Estazioa egitea? Edo baztertu egin al du aukera hori, eta Mendazako putzuan hirugarren ponpaketa bat sartuta ordeztuko al da Nafarroako Ubideetik hornitzea aurreikusten zen ura?

Aurreko erantzunetan adierazi den legez, konexioa 2029tik aurrera egin beharko da, Elizagorria, Mendabia eta Lodosarako hodiak egin ondotik.

Gogoratu behar da Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Osoaren Plan Zuzentzailea sei urtera berrikustea aurreikusten dela.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legerian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko ekainaren 3an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00187. Galdera, Nafarroako Arartekoaren Q24/987 Ebazpenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Nafarroako Arartekoaren Q24/987 Ebazpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak 11-25/PES-00187 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Q24/987 Ebazpenean aipatutako seinaleen egoerari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Zein dira (zein testu dute) eta non daude kokatuta Q24/987 Ebazpenean aipatzen diren seinaleak?

Kexan aipatzen diren kartel edo seinaleak banaketa obren ondorioz Belateko tunela itxi zenean instalatuta egon ziren informazio panelak dira. Une honetan ez daude instalatuta Nafarroako errepide sarean.

Zein izan dira, zehatz-mehatz, Q24/987 Ebazpenaren gomendio eta iradokizunei jarraituz seinaleztapenean egin diren aldaketak?

Ez da aldaketarik egin, ebazpenean aipatzen diren kartel edo seinaleak iaz kendu zirelako.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legerian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu personalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00188. Galdera, Nafarroako Arartekoaren Q24/55 Ebazpenari uruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Nafarroako Arartekoaren Q24/55 Ebazpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak 11-25/PES-00188 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Q24/55 Ebazpenean aipatutako seinaleen egoerari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

Zein dira (zein testu dute) eta non daude kokatuta Q24/55 Ebazpenean aipatzen diren seinaleak?

Q24/55 Ebazpenean, N-121 errepideko zenbait trafikoko seinaleren errokulazioaren inguruko kexa bat jasotzen da.

Zein izan dira, zehatz-mehatz, Q24/55 Ebazpenaren gomendio eta iradokizunei jarraituz seinaleztapenean egin diren aldaketak?


Lurralde Kohesiorako Departamentuak Arartekoak N-121-A eta N-121-B errepideetako kartelen errokulazioari buruz emandako gomendioak betetzen ditu.

Aipatzekoa da indarrean dagoen araudia aplikatzen dela eta Euskaltzaindiak ezarritakoa kontuan hartzen dela.

Aldi berean, kontuan izanda trafikoko seinaleak elementu garestiak direla eta kalitate estandar eta homologazio jakin batzuen arabera fabrikatzen direla, baliabideen ekonomiaren, baliabideen erabilera jasangarriaren eta altxor publikoa zaintzearen mesedetan, Zainketa Zerbitzuaren jarraitzea da trafikoko seinale edo kartelak narriatzen direnean ordeztzea –salbuespena bandalismoaren ondorioz hondatutako kartelena da–.

Galderan aipatzen den espediente hartutako konpromisoari dagokionez, Arraiozko biribilguneko seinaleak eta geziak egokitu eta eguneratu direla berresten da.

Hauek dira Zainketa Zerbitzuak N-121 errepidean egin dituen azken jarduketetako batzuk:



26.-P.K. 53+880 de la N-121-B Creciente.



27.-P.K. 51+130 de la N-121-B Creciente.



28.-P.K. 46+010 de la N-121-B Creciente.

“Frantzia” izendapena ipintzen ari dira N-121-A eta N-121-B errepideetan egindako obregatik jarri berri dituzten seinaleetan. Instalaturako kartelean eranskina jartzeko programatuta daude lanak, horretarako behar adina espazio fisiko badago.

Gainera, komunikazio elebiduna ezarri da Nafarroako errepide sareko mezu aldakorren paneletan.

“Irun” izendapenaren haritik, udalak Zainketa Zerbitzuari jakinarazi dio udalerriak izen bakarra duela; horrenbestez, “Irun” izenaren erabilera berretsi du.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legerian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00189. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren balizko desegiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren balizko desegiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00189 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galdera-sortari erantzunez:

1.- Nafarroako Gobernuak zer egingen du Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin, Kontuen Ganberaren azken txostenaren ondoren? Desegin egingen al du?

Departamentu honek jakin duenez, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak batzar berezi bat egin zuen 2025eko apirilaren 24an, eta bertan entitatearen jarduera etetea erabaki zuen. Nafarroako Gobernuak, kontseiluaren eraketa juridikoa kontuan hartuta, errespetatu egiten ditu organismoak bere autonomiaz baliatuz hartu dituen erabakiak.

2.- Deseginez gero, zer irtenbide planteatuko du indarrean dagoen Gazteriaren Foru Legearen bidez Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak esleitura zituen eginkizunak bete ahal izateko?

Gazteekin komunikatzeari dagokionez, Nafarroako Gazteriaren Institutuak hainbat bideren bitartez etenik gabe gazteekin komunikatzeko kanal bat du, bide formalen nahiz informalen bidez elkarrizketan aritzeko. Hori bai, Nafarroako Gazteriaren Kontseilu operatiborik ez dagoenez erakunde mailako komunikazioa bideratzen duenik, Gazteriaren 11/2011 Foru Legeak Nafarroako gazteriaren politika integralaren inguruko kontsulta eta aholkularitzarako organo gisa ezartzen duenaren bitartez egingen du, hau da, Gazteriaren Erakundearteko Kontseiluaren bitartez.

3.- Izanen al du eraginik eskualdeko eta tokiko gazteria-kontseiluetan?

Zeintzuk daude eratuta eta funtzionatzen gaur egun?

Udal mailan badaude horrelako organoak. Toki eremuan jarduten dute, eta udal ordenantzen bidez arautzen dira, ez foru araudiaren bidez. Departamentu honek dakienaren arabera, organo horiek ez dute inolako harremanik izan Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin azken urteotan, eta, hortaz, ez da aurreikusten jarduera eteteak eraginik izanen duenik haien gainean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 3an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00190. Galdera, Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioaren Zerbitzua izenekoaren zerbitzu-kontratuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioaren Zerbitzua izenekoaren zerbitzu-kontratuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 23ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariori atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00190 informazio eskaera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderasortari erantzunez:

Zergatik uste duzu geratu dela hutsik Nafarroako Foru Komunitateko Migratzaileentzako Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioko Zerbitzua izeneko zerbitzu-kontratu?

Zerbitzu edo prestazio bat kontratatzeke lizitazio publiko bat hutsik geratzen denean, normalean zenbait arrazoi egoten dira tartean, adibidez: hornitzaileek interesa galtzea, baldintza-agiriko baldintzak erakargarriak edo lehiakorak ez izatea, eta deialdiaren hedapen eskasa. Migratzaileentzako Kulturarteko Bitartekotza Komunitarioaren Zerbitzuaren kasuan, baliteke inguruabar horietakoren gertatu izana; hala ere, datu zehatzik ez dugunez, hipotesiak baino ezin ditugu egin.

Nafarroako Gobernuak zer egingen du hori dela-eta?

Kontratu bat hutsik geratuz gero, entitate lizitazio gehiago erakartzeko, administrazioak baldintzak aldatu edo ezarritako betekizunak egokitu eta beste lizitazio baterako deialdia egiten ahal du.

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia lizitazioa hutsik geratu izanaren arrazoiak ebaluatzen ari da, baita baldintza-agiria aldatzeko aukerak aztertzen ere. Hauek izaten ahal dira aukera horietako batzuk: adjudikazio irizpideak doitzea, baldintza ekonomikoak aldatzea edo parte hartzeke betekizunak zabaltzea, entitate lizitazioaren partaidetza errazteke eta zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko.

Berriro lizitatzen baldin bada, aldatu egingen al da baldintza-agiriko klausularen bat? Hala baldin bada, zeintzuk eta zer zentzutan?

Baldintza-agiriak aldatzeko aukera aztertzen ari gara, lehiakortasuna hobetzeko eta zerbitzua behar bezala ematen dela ziurtatzeko, betiere berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta gardentasunaren printzipioak errespetatuta. Kontratuak prestatzea, baldintza-agiriak egitea barne, dagokion kudeaketa unitatearen kontrolpean eta ardurapean egiten da.

Alde horretatik, baldintza-agirietan egiten ahal diren aldaketak eta, kasua bada, izapidetzen den lizitazio prozesu berria behar bezala eta legez ezarritako prozeduraren arabera argitaratuko dira. Gardentasuna une oro bermatuko da, eta interesa duten entitate guztiek baldintza berdinetan parte hartzen ahalko dute.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00191. Galdera, Esako urtegia handitzearen ondoriozko luizi-arriskuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Garrido Sola jaunak Esako urtegia handitzearen ondoriozko luizi-arriskuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko maiatzaren 23ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak 11-25/PES-00191 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Esako handitzeak eragindako luizi arriskuaren onarpen inplizituaren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Nafarroako Gobernua ez da Esako urtegiaren titularra, ezta handitze lanena eta eskuineko hegalean iragarritako proiektuarena ere. Hala ere, nabarmendu urtegiaren inguruan egiten ari diren lanak segurtasuneko eta sendotasuneko goreneko bermearekin egiten ari direla.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak honako hau ere nabarmendu nahi du: Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak urtegiaren eskuineko hegalean 47 milioi euroko aurrekontua duten handitze lanak egitearen helburua egonkortasuna indartuz obra ahalik eta gehien segurtatzea da. Lanon xede nagusia urtegiaren behera dauden Nafarroako herrien segurtasuna bermatuko duen irtenbide tekniko bat gauzatzea da.

Bestalde, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua ere, auziaren inguruan lanean ari da aspalditik dituen eskumenen eremuan, zehazki, babes zibilaren arloan eta urtegiaren behera bizi diren pertsonen zuzendutako jarduketaren prebentiboen lanketan.

Ildo horretan, urtegiaren emergentzia planaren ezarpenean kolaboratzen du, eta inguruko udalen eskutik autobabesaren arloan lanean ari da; hala,

laguntza eskaini die beharrezkotzat jotako plan eta protokolo guztiak garatzeko, adibidez, uholdeei aurre egiteko planen parte izan daitezten.

Era berean, uholde arriskuari aurre egiteko babes zibileko planak egitea ere bultzatu du; horren erakusle, bai Zangozak bai Kasedak udal jarduketako planak dituzte, bi udalerrion kasuan nahitaezkoa dena. Zangozako Planaren aldaketa 2023an homologatu zen, eta Zangozak Ebakuazio Plana ere badu; Nafarroako Gobernuak egitasmoak herritarrei eta inguruko enpresei aurkezteko jardunaldietan parte hartu du, eta aurrerantzean ere udala babesten jarraituko du, bai eta urtegiaren behera kokatutako gainontzeko toki-erakundeak ere. Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahaliko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 11-25/PES-00191 galdera egin zion Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuak Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Nafarroako Gobernua ez da Esako urtegiaren titularra, ezta handitze lanena eta eskuineko hegalean iragarritako proiektuarena ere. Hala ere, nabarmendu urtegiaren inguruan egiten ari diren lanak segurtasuneko eta sendotasuneko goreneko bermearekin egiten ari direla.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak honako hau ere nabarmendu du: Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak eta

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak urtegiaren eskuineko hegalean 47 milioi euroko aurrekontua duten handitze lanak egitearen helburua urtegiaren egonkortasuna indartuz obra ahalik eta gehien segurtatzea da. Lanon xede nagusia urtegiaren behe-
ra dauden Nafarroako herrien segurtasuna bermatuko duen irtenbide tekniko bat gauzatzea da.

Bestalde, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua ere auziaren inguruan lanean ari da aspalditik dituen eskumenen eremuan, zehazki, babes zibilaren arloan eta urtegiaren behe-
ra bizi diren pertsonen zuzendutako jarduketaren prebentiboen lanketan.

Ildo horretan, urtegiaren emergentzia planaren ezarpenean kolaboratzen du, eta inguruko udalen eskutik autobabesaren arloan lanean ari da; hala, laguntza eskaini die beharrezkotzat jotako plan eta protokolo guztiak garatzeko, adibidez, uholde-
ei aurre egiteko planen parte izan daitezten.

Era berean, uholde arriskuari aurre egiteko babes zibileko planak egitea ere bultzatu du; horren erakusle, bai Zangozak bai Kasedak udal jarduketako planak dituzte, bi udalerrion kasuan nahitaez-
koa dena. Zangozako Planaren aldaketa 2023an homologatu zen, eta Zangozak Ebakuazio Plana ere badu; Nafarroako Gobernuak egitasmoak herri-
tarrei eta inguruko enpresei aurkezteko jardunaldi-
tan parte hartu du, eta aurrerantzean ere udala babesten jarraituko du, bai eta urtegiaren behe-
ra kokatutako gainontzeko toki-erakundeak ere.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parla-
mentuko Erregelamenduaren 15. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kon-
tseilaria: María Amparo López Antelo